

The logo consists of the lowercase letters 'uk' in a bold, white, sans-serif font, centered within a solid black square.

uk

143. zenbakia / 2008 irailak 22



Olgetan

euskaraz

Berriztatua



eskulanak

jolasak

tailerrak

antolatzaileak

laguntzaileak



1997 eta 2003 urteren artean jaiotako eta Leioan erroldutako umeentzako jolasak

Matrikula:

Kultur Leioan,
Euskara Zerbitzua
94 607 25 76
Irailak 22-29

HIRU AUKERA

**1 Astelehen
Asteazken
Ostiraletan**

**2 Astearte
Ostegunetan**

3 Egunero

17:30 - 19:00

Non zer

4. GU GEU.
5. IRUDIA. Zirkua Portu Zaharrean.
7. LEHEN ETA ORAIN. Algorta.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
11. ERRETRATUA. Alberto Galindo.
12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopelana 20. Berango 22. Gainerako herriak 23.
25. AGENDA.

SAKONEAN

26. ALBUMA. Getxoko Folk jaialdia.
28. ARGAZKIA. GetxoPhoto.
30. BERBETAN. Joseba Zulaika, Esti Ezkerra.
34. FOTOGRAFIA. Palestina, Lina Etchesuri.

KULTURA ETA AISIA

42. ZINEMA. Leioako film laburren lehiaketa.
43. MUSIKA. Patada en la papada. Diskoen erreseinak.
44. LIBURUAK. Paul Auster. Liburuen erreseinak.
45. KIROLAK. Goiherri sokatira taldea.
46. ELKARRIZKETA. "Yubia" graffitigilea.

AMAITZEKO

49. NON JAN. Anai-bi gozotegia.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Ander Deuna ikastola, Bittor Egurrola.
54. AITORMENAK. Itsaso Paya.

Azaleko argazkia: Lina M. Etchesuri




30 Joseba Zulaika

Berbetan


Renotik Uribe Kostara heldu zaizkigu antropologo gipuzkoarraren berbak, hamaika gogoeta eta hausnarketa jasotzen dituzten hitzak.



11 Alberto Galindo




34 Palestina



14 Luix Artola



16 Haizea Hormaetxea




54 Itsaso Paya


An advertisement for Renault cars. It features a man on the left talking on a mobile phone, with several Renault cars shown in a thought bubble above him. The text includes 'Bilatu zure Renault "Km.0"', 'Bilbo Berri Getxo-ren web berria', and the website 'www.seminuevosengengetxo.com'. At the bottom, it says 'BILBO BERRI' and 'Bizkaire, s/n - ALCORTA. Tel. 94 430 68 81'.

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZALEA: Boluntzarreta Elkartea
HELBIBIDEA: Amezi 6, 4. solairua, 5. bulegoa 4891 GETXO
 e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171
 Tel: 94 491 13 37
ZUZENDARIA: Jokin Aspuru
ERREDAKZIOA: Irantzu Sagaminaga, Maitane Nerekan, Zuberua Iturburu
FOTOGRAFIA: Asier Menbaka, Ane Basagoiti
TESTUEN ORRAZKETA: Ziortza Vega
KOLABORATZAILERAK: Jorje Perez, Bittor Egurola, Oskar Fernández, Itxaso Arana, Gaizka Escudero, Xabier Paya, Esti Ezkerra, Berbots Erandion Euskaraz eta Bizarra Lepoan Euskara Elkartea
MARRAZKILARIAK: Dogan Gozel
PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Zuriñe Martínez (94 491 13 37)
KANPO HARREMANAK: Gorka Orueta
FILMAZIOA: Argia / **INPRIMATEGIA:** GESTINGRAF
LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
ISSN: 1576-6799

© Boluntzarreta


ERAKUNDE LAGUNTZAILERAK



gugeu

Zelan joan da uda, ba?

Urtarrileko aldapa da ospetsuena baina irailekoa ere ez da makala! Abuztuko erritmo lasaiaren ostean, konturatu barik laneko erritmo frenetiko heldu da, atea jo gabe, eta ez bakarrik UKko bulegora. Aurten ez dugu topatu korreo elektronikoa kea dariola, mezuz beteta; deialdi eta berri gitxi e-postan eta UKko beharginok orrialdeak betetzeko irrikitan. Badirudi apurka martxa hartuz doazela herriak, udako azken jaiak gozatu bitartean. UKkook antzera, lankide batzuk errealitate gordinera itzulita, eta beste zenbait oporrak bukatu ezinik.

Lantoki guztietan entzuten ei dira istorio berberak garai honetan, eta zergatik ez, historia berak ere; krisi entzutetsua denon ahotan eta ematen du bidaia gitxi egin duela jendeak. Marijaia ugari ibiliko zen, hortaz, jairik jai, eta ez Bilbon bakarrik. Agian lurralde tropikalen bat eskualde exotiko honegaz trukatu zuen baten batek, Karibe itsasoko ur gardenak Kantauriko olatu ernaldoiakaz... Surfari autoktonoz beteta egon dira igoal Lemoiztik Getxorako hondartzak. Zergatik ez? Aspertzeko aukerarik ez baitago Euskal Herrian. Horregatik espero dugu laster ekitaldiz zein ekimenez beteta ikustea UKko agenda, ikasturtea abian dago-eta! UKkook irrikaz, ilusioz beteta, *“Honek ez dauka atzera bueltarik”* esan eta abiada harrapatuz joango gara abendura bitartean, geldiune barik!

UK-ko lantaldea

Izan solidario, izan GETXOPHOTO



Non eskura daitezke artikulu hauek?
 House Dream
 Algortako Etorbidea 88
 Algorta (Getxo)

GETXOPHOTO 2007an parte hartu zuten argazkilarik ospetsuek kalean ipini zituzten irudiak poltsa, amantal, zorro eta mahai-oihailxo bihurtu ditugu, artikulu original bakarrik sortuz. Behar hau lan merkaturan sartzeko zailtasunak dauzkaten pertsonak birziklatu dituzte Ecolinea enpresaren bitartez. Irabaziak ATFAL Getxo Pro-Sahara elkarteari emango zaizkio.

GETXOPHOTO 2008 irailaren 11tik urriaren 12ra
 +info: www.getxophoto.com



[irudia]



Ikuskizuna hastera doa! / Zirkuak badu xarma berezia, errealitate gogorra argiz betetako fikzio magiko bihurtzen da kopa-kapeldunak *“ikuskizuna hastera doa”* oihukatzen duenenean. Animalien izerdi usainak kiratsaren esangura galtzen duen lekua da, pena zer den ez dakiten pailazo bihurtzen diren artisten taula, grabitatearen legea eragutzen ez duten trapezisten oholta, eguneroko lan nekagarria ordu gutxiko ikuskizuneari bakarrik txalotzen den guncea... Badu zirkuak ametsetik eta amesgaizotik, gehienetan lilurari baino begiratzen ez badiogu ere. Portu Zaharrean egondako karpapeak zer gordeko zuten? / Agazkia: **Ane Basagoiti**

GUK EUSKARAZ, ZUK ZERGAITIK EZ? ZATOZ NOSOTROS EN EUSKARA ¿Y TÚ?

¡ANÍMATE!

LITXIA NAIZ.

AISA
CURSO DE ACOGIDA LINGÜÍSTICA PARA NUEVOS Y NUEVAS GETXOTARRAS

TANTOS KILÓMETROS!, TANTA DISTANCIA! ¿Y TE VAS A PERDER LO MEJOR?. VEN, ACÉRLATE, TE ENSEÑAREMOS LO BÁSICO DEL EUSKERA, DESCUBIRÁS LO MEJOR DE NUESTRA CULTURA.

Getxo EUSKARA BIZI EUSKALTAIA BIFA DFB HADE euskaltel

INFORMAZIOA
Udal Euskaltzia, Tel.: 94 464 62 99 (ROMO) LAIAZITA AEK EUSKALTZIA, Tel.: 94 430 47 34 (ALCORTA) J. A. ACIRRI EUSKALTZIA, Tel.: 94 460 66 71 (ALCORTA)



Iraganez doa denbora* beti / X

* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > Getxopholktohop



Getxophotok Folk jaialdiaren barnean egin du ekimena; norberak bere postala egin du

Testua: **Xa2 Paya** / Argazkia: **Hodei Torres**

Zaila da argazkien neurriak haustea: markoan sartzen dena kanpoan uztea eta sartzen ez dena ikusaraztea... Baina ez da hain zaila nahi dena ikustea: nahikoa izaten da begiak ixtea.

Lehen posible zena ametsei eskerrak berarenganatu du Photoshop liderrak inoiz ere ikusi gabeko bazterrak dakarzkigu tren bako abaila lasterrak... orain edonork dauzka paretan posterrak.

Izan (ah)al da Everest edo Acapulco, atzean jarriz ez da inor ohartuko. Inprimatu argazki hori eta punto, hori bai nahiz eta zu agertu lekuko, zure antibirusak ez du onartuko.

* Doinua: Egunaren izena



BASALBO BASERRIA JATETXEA

MARTITURRI ESTARTA 18 / 48993 ANDRA MARI - GETXO
TEL./FAX: 94 491 34 91 / BASALBOBASERRIA@YAHOO.COM

Kontserba ikastaroa > Uribe Kostako Mankomunitateak antolatu du



Piper gorriak kontserban.

Kontserbak egiteko ikastaroak abiatuko dituzte urrian Urdulizko probalekuan, Uribe Kostako Zerbitzuen Mankomunitatearen eta EHNE sindikatuaren ekimenez. Barazkiak, arraina edota fruitak kontserbatzeko tresnak erakutsi asmo dute ikastaroek, eta Mankomunitatea osatzen duten herrietako lagunek parte har dezakete (Barrika, Berango, Gorliz, Lemoiz, Plentzia, Sopelana eta Urduliz). Hainbat talde osatuko dute, hamabost lagunetakoa bakoitza, eta bariku arratsaldetan, zein zapatu goizetan bilduko dira. Azarora arteko ikastaroetan jadanik ez da posible izena ematea, baina urtariletik aurrera egingo dituztenetan, urte bukaera arte dago izena emateko aukera. Horretarako 946762674 telefonora hots egin, edota kosta@uribekosta.org helbidera bidali behar da izen-emate orria. Informazio gehiago eskura daiteke www.uribekosta.org gunean. ○

Bizkaiko Zubia > eskanerra egingo diote




Bizkaiko Zubia, Areta ezkerrean duela.

Teknologia modernoak erabiliko dituzte Bizkaiko Zubiari azterketa egiteko. Egun bezain ondo jarrai dezan dute helburu egingo dizkioten frogak. Bereizmen handiko eskanerra egingo diote zubiari eta hiru dimentsiotako planoak lortuko dituzte sistema informatiko modernoak bitartez. Berregite birtual horien bidez eraiki ahal izango dituzte mota guztietako simulazioak, gero zubiaren egoera zehatza, iraupen ahalmena edota hobekuntzarik behar duen ezagutzeko. "Zubiak oso osasun ona dauka baina, baieztapen zientifikoa gura dugu", adierazi du Jose Martin Uriarte Bizkaiko Zubiaren elkarteko lehendakariak. Azterketa egiteko ardurak dauka Inertek 3D Technology System enpresak; irailaren hasieratik dabil lanean. Zubiak 115 urte ditu jadanik. ○

saiaz getaria HOTELA

Roke Deuna 25
280808
Getaria
Gipuzkoa



..harria



...lehenengo garaiak...



...itsasoa

www.saiazgetaria.com / info@saiazgetaria.com / t. (+34) 943 140 143

II. Getxoko Milia > Lehenengo miliatik 21 urtera



Piter Bomo keniarra, Elite mailako txapelduna, lasterketaren une batean.

Itxartu eta Getxoko Atletismo taldeek antolatu zuten irailaren 6an II. Getxoko Milia lasterketa, lehenengo miliaren edizioa egin zenetik 21 urte ondoren. Txikiak, kimuak, haurrak, kadete, senior eta elite mailatan banatu zituzten lasterkariak. Antolatzaileak oso pozik daude jende asko hurbildu zelako lasterketa ikustera eta, partaideen artean, maila handiko lasterkariak izan zirelako. Adibidez, olinpiar jokoetan parte hartu berri duten bi emakume izan ziren Getxon, Iris Fuentes Pila kantabriarra eta Frehiwot Goshio etiopiarra. Emaizta onak ikusita, datozen urteotan lasterketa antolatzen jarraitzeko asmoa agertu dute Itxartuk eta Getxoko Atletismo taldeek. Dagoeneko dirua aurreratu dute datorren urteko milia Nazioarteko mailakoa izan dadin. Halere, data eta ordutegi aldetik aldaketaren bat egitea aurrirakusten dute, hainbat mailatan partaide gehiago erakarri asmoz. Kimuak, Haurrak, Kadeteak, Gazteak eta Junior mailak dira. ○

ETB 3 katea > Urriaren 10ean hasiko da emititzen



Euskaraz bail materiala.

Euskal Telebistak bi kate estreinatuko ditu laster. Batak, ETB 3k, urriaren 10ean abiatuko du emisioa. ETB 4k, berriz, datorren urtean ekingo dio emititzeari. Biak ala biak Euskal Herri osoan ikusi ahal izango dira eta TDT (Lurreko Telebista Digitala) sistema bidez emitituko dira. Hortaz, Seinale digitala jasotzeko gai den telebista beharko da edo bestela telebista analogikoari deskodegailua gehitu beharko zaio. ETB 3 euskaraz izango da. Publiko gazteari zuzendua egongo da eta Betizu, Gaztea eta EITB Kulturako edukiez osatuko dute. ETB 4ren helburua, berriz, parte hartzea sustatzea eta informazio zerbitzua indartzea izango da, EITBko buruen arabera. Hiru urte barru euskal etxe guztietara iritsiko ei da seinale digitala baina, oraingoz, analogikoa soilik iristen da gehienetara. ○



"Getxoko herriak oso ondo hartu nau hasieratik; horregatik, herriari ekarpen bat egiten saiatzen naiz ni ere"

Alberto Galindo > Bolibiako Lagunak Kirol Elkarteko lehendakaria

Bolibiako Cochabamba hirian jaioa den arren, 2001etik Getxon bizi da Alberto Galindo. Erabat integratua sentitzen da, eta hori herritarrek egin dioten harreragatik dela uste du: "Oso ondo hartu naute hasieratik; horregatik, nire ekarpena egiten saiatzen naiz". Ekarpene horrek, ADREBOL (Bolibiako Lagunak Kirol Elkarte) izena du. 2006an sortu zuten kirol-praktika bultzatzea helburu duen elkarte. Gaur egun, Hegoamerikako hainbat herrialdeetatik etorritako, zein Uribe Kostako gizon-emakumeek osatutako, 21 futbol talde baino gehiagok parte hartzen dute; 2007ko *Mundialito* txapelketako finala irabazi zuten "katedralean". Gogor lan egin behar da elkarte aurrera ateratzeko: "Gobelaurreko zelaian hasi ginen, baina liskarrak sortu ziren, eta utzi behar izan genuen. Orain, Faturako zelai bat utzi digute eta honen azpiegitura ez da batere ona; hala ere, moldatu egiten gara. Jende asko kontrolatu behar dut, eta desadostasunak sortzen dira. Lan gogorra da, baina nire jendeagatik dena egiteko prest nago". Herriaz gain, hizkuntza berri bat deskubritu du Albertok: "Heldu nintzenean ez nekien euskara zenik ere; sorpresa atsegina izan zen. Orain, seme-alabek oinarritzkoa irakasten didate". Konfiantza handia du euskaldunongan: "Kultura handiko jendea da euskalduna, eta badakite eskua nori eman behar dioten". ○ Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Maitane Nerekan**

cianoplan **Reprografía**
global printers

Vila de Plentzia 6. zbk
Antigua Goll - Getxo
Tlf. 944 649 067
944 648 691
<http://www.cianoplan.es>

- Imprimatze eta plano kopiak
- Karteak kolorez eta z/b
- Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua
- Fotokopiak kolorez eta z/b
- Era desberdinetako koadernaketak
- Plastifikazioak
- Cd eta DVD grabaketak eta imprimaketak
- ermarkaketak



Ikastaro berriak prest

Emakumeentzako Jabekuntza Eskolak laster emango dio hasiera **bosgarren denboraldiari** eta hori helburu oraintsu aurkeztu ditu **urritik aurrera eskainiko dituen ikastaroak**

Getxoko Emakumeentzako Jabekuntza Eskolak ibilbide berria, 2008-2009 ikasturtea, hasiko du laster, eta honegaz bosgarren urtea beteko duen ekimenak, hastapenetako helburuei leial eta berdintasuneko etorkizunerantz pausoak emonez.

Emakumeen arteko topaketa, gogoeta eta prestakuntza espazio gisa finkatzen doan ekimena da, Getxoko Emakumeentzako Jabekuntza Eskola. Basauri, Ermua eta Ondarroakoagaz batera, sare bat osatzen du Getxokoak, lau udalerriek bultzatutako proiektua da, eta "emakumeen partaidetza politikoa eta soziala bultzatzea" du helburu.

Ikasturte berriaren aurkezpena urriaren 13an (19:00, Villamonteko kultur etxea) izango bada ere, Emakumeentzako Jabekuntza Eskolak 2008/09 ikasturterako eskainiko dituen ikastaroen berri eman dute dagoeneko, eta aurretiko izen-ematea zabalik dago. Bosgarren ekitaldi honetan 17 ikastaro eskainiko dituzte, iaz baino bost gehiago, eta horietan parte hartzeko, guztira 274 leku egongo dira, aurreko urtean baino 94 gehiago. Leku kopurua mugatua denez, horietan parte hartu gura duenak aurretiko izen-ematea bete beharko du. Lekuen zozketa hilaren 22an egingo da (10:00) Martikoena kaleko 16. zenbakian (Algorta).

Iaz Jabekuntza Eskolako ikastaroetan parte hartu zuten andrazkoen batezbesteko adina 48 urtekoa izan zen, %14 hogeita hamar urtetik beharagoak izan ziren; parte-hartzaileen artean %46k unibertsitate mailako ikastetako zituen, portzentaia horrek



hhhhhhhhhhhh

gora egiten du, %70 arte 40 urtetik beharago andrak bakarrik kontuan hartuz gero.

Aurten eskainiko diren ikastaroak hurrengo trebakuntza lerroetan banatuko dira: emakumeen nortasuna eta subjektibotasuna, komunikazioa, feminismoa eta azkenik, munduko emakumeekiko elkartasuna eta trukea. Hala, horietan bilduta, hurrengo ikastaroak emango dituzte:

«Guztira ikasturtean zehar 17 bat ikastaro eskainiko dituzte, lekuen kopurua mugatua da.»

Munduko emakumeen literatura (urriak 14-maiatzak 26); *Topaketa kontatzen* (urtarrilak 10-martxoak 28); *Komiki femeninoan sartzen berri desberdinen bitartez* (urriak 17-urtarrilak 16); *Autodefentsa* (azaroak 21-22); *Kultur aniztasuna eta Feminismoa* (urtarrilak 16-17); *Afrikako emakumeen*

errealitatearen ikuspegi feministak (azaroak 28-29); *Feminarioak* (lau izango dira, otsail eta maiatza artean); *Negoziatzeko trebezia emozionalak* (urtarrilak 30-31; otsailak 6,7 eta 13); *Ibilbide zinematografikoa harreman femeninoetan zehar* (urriak 14-abenduak 16); *Gu emakumeok: aldetarako subjektuak* (urriak 20-maiatzak 18); *Maitasuna ez da kontatu ziguten bezalakoa, ezta asmatu genuen bezalakoa ere* (abenduak 2,3 eta 4) eta *Jende aurrean hitz egiteko teknikak* (urriak 16-abenduak 18 eta urtarrilak 13-martxoak 24). ○

Datu batzuk

- **Informazioa:** 94 466 01 30 edota www.getxo.net
- **Harremanetarako:** ieizmendi@getxo.net berdintasuna@getxo.net

Uriolen gorabeherak

Gobela ibaiarako egitasmoa aztertzen dabilta



xxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxx

Pentsa genezake uriolak aspaldiko kontuak direla, baina haiek utzitako ondorioak, eta etorkizunekoak aurreikusteko egitasmoak, egungo kontuak dira. Hala, Getxoko Udala Gobela ibaiaren egokitze-hidraulikorako, eta bertoko ingurumena berreskuratzeko egitasmoa aztertzen dabil. Eusko Jaurlaritzaren menpeko erakunde URAK idatzi du egitasmoa, eta udaleko teknikariek aztertu ondoren, Udala eta uriolek kaltetutako elkarteak, horren gaineko hausnarketa egiten dabilta. Ibaiaren egokitze egitasmoaz gainera, saneamendu sarearen inguruko hobekuntza eta proiektuen berri eman gura dute. Horren inguruan Hirigintza zinegotzi den Joseba Arregik azaldu duenez, "ona indik ibaiaren egokitzea egiten hasi ez delako, pertsona batzuen ezinegona ulertzen dute, baina Udalak aurreikusitako, eta gure eskumenak diren lan guztiak

egin dituela ziurra diezaieket". Horien artean aipatzekoak dira, berbarako: saneamendu sarearen garbiketa (sare osoa telebista kamaren bidez ikuskatu da, eta 6 tona harri kendu dituzte), Gobela ibaiaren garbiketa egin dute, eta orain uberkaren sastraka kentzen dabilta. Bestalde, herritarrek etxeetan berriro sartzeko laguntza guztiak bideratu direla, eta uholdeak zirela eta kaleratutako dekretuetako gainontzeko gauzak ere, bideratzen dabiltzala azaldu dute udal arduradunek.

Merkatarien laguntza

Getxo Empresarial y Comercial elkarteari atxikitutako 20 bat enpresak eta dendak elkartasun egitasmoa ipini dute martxan, urioletako kaltetuak laguntzeko, esaterako ordainketa malguak edota beharpenak eskaintzen dituzte. ○

AREETAKO LUDOTEKAN IZENA EMATEKO EPEA ZABALIK

Areetako udal ludotekan ikasturte honetarako izena emateko epea zabalik egongo da leku guztiak betetzen diren arte. Gunearen zebitzua bi txandatan banatuta dago: lehenengoa 17:30-18:30 (5-7 urteko umeentzat) eta bigarrena 18:30-20:00 (8-10 urtekoak). Gunea erabiltzeko bazkideek 40 euro ordaindu beharko dituzte (gutxiago familia ugariok edota errenta gutxiok familiek). Izena emateko orria ludotekan bertan jaso beharko dute erabiltzaileek eta Herritarrek Artatzeko Bulegoetan entregatu. **Informazio gehiago: 94 466 03 55**

“LA TERRAZA” LASTER BOTAKO DUTE

Ereagako hondartzako La Terraza tarbenaren eraikina laster, urrian edo, eraitsiko dute, Udalak bertan eraikiko duen erabilera anitzeko eraikina altxatzeko. 1.315 metro koadroko eraikin berria Turismoko Udal Bulegoa, taberna-jatetxe bat, komun eta aldagela publikoak, Gurutzeko Gorriko zerbitzuak, hordaintzak etab. egongo dira. - Bi urte barrurako edo zabalik egongo d en eraikinera 3,4 milioi euro bideratu ditu Udalak. Udaletik jakinarazi dutenez, aireko elementu kutsagarriak deuseztatzen dituen hormigo berez batagaz estalita egongo da, geotermia sistema bat (lurraren sakontasun handietako beroa hartuko du) erabiliko du klimatizatze eta panel fotovoltaikoak edukiko ditu.

GOBELAURRE PARKERAKO EGITASMOA

Txabarri Zuazo parkea, Gobelaurre legez ezaguna, zaharberrietako egitasmoa aurkeztu du Udalak. 1,8 milioi euroko aurrekontua dauka eta hurrengo udarako amaituko ei dute. Herritarrek euren iritzia jasotzeko egitasmoaren berri emango da Erromon urriaren 5era arte. Parkea 3 alde nagusitan banatuko da: kirol aniztetzarako gunea (gazteei begira), jolasgune bat (umeentzat; 2. fase batean estaliko dute) eta gimnasia aparatudun aldea (nagusientzat).

san inazio

autoeskola
1951n sortua

LCC - A1 - A - B - BTP
baimenak

Telletxe, 13 / Tel. 94 460 00 45
ALGORTA

Garaizar
berrikuntzak

- igeltserotza orokorrean
- etxebizitzak eta lokalak
- gremioak

tel: 944 430 52 43 / 607 952 977 • regaraizar@euskalnet.net
Illeta kalea 1 • ALGORTA



Torreña 2, ALGORTA
T. : 94 491 12 71

Luix Artola > Lutiera (biolingilea)

“Egur-lana gustatuta, are gehiago gustatzen zait, horrek soinu ederra sortzen duela ikustea”



Artola, Azkorriko bere lantegian. Harremanetarako: 665 72 91 72

Zestoarra da jaiotzez Luix Artola; urte askoan Azkoitian eta Bilbon bizi ostean, orain dela hiru urte getxoartzatu zen. Lau urte dira Bilboko Luteria Eskolan (Bilboko Kontserbatorioko biolingintza eskola) hasi zena ikasten, eta hiru urteko karrera amaituz geroztik, Azkorriko lantegitxoan dihardu lanean. Batez ere biolinak, eta horren familiako musika tresnak konpontzetik bizi da, baina egin ere, egiten ditu.

—Zelan sortu zitzaizun lutier izateko gura?

—Ez dakit biolina jotzen, jotzen dudana apurra, orain ikasi dudana da; batez ere tresna, eta soinua ezagutzeko edota afinatzeko. Egurrerako zaletasuna beti izan dut, honetan jardun aurretik, egur tailan eta eskulturari ibilia naiz; egurra lantzeko eta eskulanetarako gogoaz gainera, trebetasuna ere badut. Langabezia lotu nintzen, eta lagun batek esanda jakin nuen honen berri, eta ikaragarri gustatu zitzaidan; langabezia aprobetxatuz, pentsatu nuen horretan egokitu behar nuela nire ogibide berria, eta horretan ahalegintzen ari naiz. Egur-lana gustatuta, are gehiago gustatu zitzaidan, hortik sortutako tresnak sortzen duen soinu ederra. Hiru

urteko karrera amaitu nuenetik, Azkorriko lantegian nabil lanean. Biolin eta bere familiako musika tresnak (biolin, biola, biolontxelo eta kontrabaxua) konpontzen jarduten dut; berriak ere egiten ditut, batez ere biolinak; kontua da egiteak etorkizun handirik ez dagoela, lana batez ere konponketetatik datorkit-eta. Tresna hauek nahiko hauskorrrak dira, eta konponketa lanak hauek izan ohi dira: kasurik onenean, berniza hondatzen zaienean, kasurik okerrenetakoan, jausi eta pitzadurak gertatzen direnean; besoa edo masta hondatzen zaie, zubiak ere denboragaz... Ogibide honetatik bizitzeko beharrezkoa da denbora, bezeroaren konfiantza zureganatu behar duzu; euren tresna asko maite

dutenez, ez da erraza, apurka-apurka lortzen da. Honetaz bizitzeko, urte askotan lana ondo egin beharra dago aurretiaz, ogibide bihurtzea gura izanez gero.

—Lehengaiak lortzea gaxa al da?

—Dana urrundik ekartzen dugu, Europako beste lekuetatik, ohitura handiagoa dagoen lekuetatik, Alemaniatik esaterako. Han badaude lehengaiak banatzen ibiltzen diren enpresak, bai egurra, bai lan-tresnak, eta tresna hauek behar dituzten gainontzeko elementu osagarri guztiak ere (hariak, zubiak, kabilak, batidoreak etab.) handik ekartzen ditugu. Lehengai garestiak lan-tresnak dira, horretan joaten zaigu diru asko; lehengaiak,

«Guk materiala erosten dugun prezioan Ekialdetik tresna guztiz amaituta etortzen da»

egurra-eta ez da hain garestia. Egur motak beste musika tresna batzuetan garrantzia baldin badauka, tresna hauetan berebizikoa dauka. Egurrak doinu onekoa izan behar du, aldi berean arina eta zurruna. Orain dela mende asko ez dela aldaketarik egon egur kontuetan, gehienbat erabiltzen diren egurrak ondorengoak dira: astigarra (azpia, saihetsak eta beso-burua egiteko), eta izeia (gainontzekorako). Gero, hariaren igurtzidura jasan behar dutena ebanoz egiten da. Berton merkatua egon egon liteke, kontua da ezaguna izan ezean, eta horretarako denbora behar eta gauzak ondo egin, bitartean izugarriko konpetentzia dagoela kanpotik; ekoizpen leku berrietan-eta oso merke egiten dute lana, eta ez dira hain kalitate txarrekoak! Kalitate-prezio harreman hori sinestezi-na, ezinezkoa da guretzat, guk materiala erosten dugun prezioan Ekialdeko enpresetatik tresna guztiz amaituta etortzen da, kutxa eta arku ere barne askotan! ○

Gazteentzako eskaintza

Iraila eta abendua bitartean Gazte Zerbitzuak **lau ikastaro** eskainiko ditu



cccccccccccccccc

Heldu da iraila, hasi da ikasturte berria, euren kaz batera, ohi legez, hainbat eta hainbat mota-tako ikastaro eskaintzak. Horien artean dago Getxoko Udaleko Gazte Zerbitzuak, urtero legez, prestatu dituen ikastaroen zerrenda. Momentuz iraila eta abendua bitarteko eskaintza aurkeztu du, eta esan barik doa, gazteei begirako lantegi edota ikastaroak direla. Lau dira ikastaroak: magiaren ingurukoa (urriak 20 eta 27, eta azaroak 3, 10, 17 eta 24; Villamonten), sabel dantzarena (urriak 3, 10, 17 eta 24; Erromoko kultur etxean) eta sukaldaritzaren gaineko bi: “munduko jakirik zapo-retsuenak eta txokolatearen plazera” (urriak 4,

11, 18 eta 25; La Sarten de la Cordeleria, Areetan) eta “bizirauten ikasteko sukaldaritz” (azaroak 7, 14, 21 eta 28; La Sarten de la Cordeleria, Areetan). Lauretatik bakarra eskainiko da euskaraz eta gazteleraz, sabel dantzarena, gainontzekoak gazteleraz baino ez. Ikastaro bakoitzak 5 euroko prezioa dauka eta izena emateko: Gazte Informazio Bulegoan (Tangora Etxea, Algortako etorbidea 98), SMS mezua bidaliz (667600740 zenbakira), edo behean adierazitakoen bitartez: ○

Harremanetarako: 944660353
gaztebulegoa@getxo.net
Informazio gehiago: www.getxo.net

SEXU ETA UGALKETA OSASUNTSURAKO IKASTAROA

Getxoko Udalak *Sexu eta ugalketa osasuntsua* delako ikastaroa antolatu du hilaren 21erako eta 28rako. Guztira zortzi orduko ikastaroa izango da eta 10:00etatik 14:00etarako orduategian eskainiko da. Besteak beste, landuko diren gaien artean daude, gura bako haurdunaldiak eta andrazkoen kontrako indarkeria.

LETREN TERRAZAK ARRAKASTA IZAN DUTE AURTEN ERE

Getxoko liburutegiek bultzatzen eta antolatzen dituzten udako Letren Terrazek erabiltzaileen arreta bereganatu dute aurtengo ere; eta urtez urte, horietara bertaratzeko diren kopurua gorantz doa. Aurtengo 33.000 bat lagun hurreratu dira, udan ere irakurzaletasuna bultzatzeko helburuagaz, udalerriko plazetan jartzen diren topagune horietara; aurreko urtean baino ia bi mila lagun gehiago. Kopuru horren erdia baino gehiago, 20.000 inguru, umeak izan dira, eta antolatzen dituzten lantegietan gozatzeaz batera, irakurtzeko zaletasuna aregotu dute. 24 urte dira udalerriko liburutegiek ekimen hau bultzatzen dutela, eta aurtengo 2.500 bat liburu ipini dituzte maileguan. Maileguez ere gora egin dute aurtengo, ia %15, guztira 13.500 liburu utzi dituzte maileguan Terrazetan; kopuru horretatik 5.000 inguru izan dira euskarazko liburuak.

TURISMOKO INFORMAZIO EGONKORREKO PANEL BERRIAK

Turismoaren gaineko informazioa eskaintzen duten hiru panel berri ipini ditu Getxoko Udalak, guztira mota horretako 5 panel daude gaur egun herrian. Panelek eskaintzen duten informazioa egonkorra da, hau da, udalerraren inguruko datuak (kokapena, argibideak, mapa etab.), urteko agenda, Bizkaiko eta Euskal Herriko mapak etab. eskaintzen dituzte 4 hizkuntzatan.



Basurto

Algorta S.L.

altzariak

LEHEN, ORAIN ETA BETI

- **1970**az geroztik altzariak diseinatzen.
- 300 m²ko erakusketa **ZURE ZAIN!**
- **ARMAIRUAK NEURRIRA** egiten ditugu (Telletxe 4)

Telletxe 4 • T: 460 71 62 / Telletxe 15 • T: 460 42 44 • ALGORTA

Haizea Hormaetxea > dantzaria

“Ez dugu begiratu behar dantzaria neska edo mutila den; dantzari begiratu behar diogu, maila erakutsi”

Ondizen Aurreku Txapelketa jokatu zuten irailaren 7an. Iaz lehen aldiz parte hartu zuten emakumeek, asko aurka egon arren. Aurten emakume eta gizonen mailak banatu dituzte, baina aurreku bera dantzatu dute. Haizea Hormaetxea izan da dantzarietako bat.



—Aurten lehenbizikoz sortu dute emakumeentzako maila Ondizen, ezta?

—Bai, baina ez da egon oso ondo prestatuta. Izatez, hasieran parte hartzea debekatzen ziguten emakumeoi, tradizioak diotelako aureskua gizonen dantza dela, eta oraindik badaude nahiko tradizionalista mundu honetan. Baina azkenean erabaki zuten, lehengo erabakia ez zela egokia, batez ere, Berdintasunaren Legea urratzen duelako. Beraz, bi maila desberdin zituzten, baina inolako desberdintsunik gabeak. Ondizen dantzatu genuena gizonenkoa da, pausu eta doinu berberagaz.

—Beste inon gertatu zaizu horrelakorik?

—Bai, Algortan, Errekalden eta Erandion debekatu didate dantzatea. Sestao, Amurrio eta Laudion, ordea, parte hartu dut gizonen-koak batera. Laudion, gainera, lehenengo saria lortu nuen. Seguruenik, emakume batek auresku txapelketa bat irabazi duen

lehen aldia izan da historian.

—Zer deritzozu Ondizko erabakiari?

—Bi maila egiteari ez derizot txarto. Adituek diotenez, emakumeak eta gizonak ez gabilta berdin fisikoki, zenbait pausu berdin garatzeko. Iritzi horiek errespetatu behar dira, ni ados egon ez arren; horretarako daude adituak. Baina maila desberdinak egiten badira, guztiz desberdinak izan daitezela. Emakumeek euren aureskua dantza dezatela, eta gizonen gizonena. Bestela, ez da logikoa. Gainera, gure dantzaren egoera ikusita,

ezin da parte hartzea debekatu emakume iza-tegati. Jarraitu beharra dago ahal den moduan, dantza hiltzen ez uzteko. Egun, gure dantzak ez daude oso modan, gazteak ez datoz gogotsu, eta gabiltzanak, hamar urte barru erretiratu gara. Belaunaldi berriei lan egiten utzi behar diegu. Ez dugu begiratu behar, dantzaria neska edo mutila den, edo beltza, txinatarra edo euskalduna den, dantzari begiratu behar diogu, maila erakutsi, eta plazak beteta egotea erromeria edo txapelketetan. ○

xxxxxxxxxxxxxxxxxxxx

Dantza eta bertsolaritza

irakatsiko dute eskola publikoetan aurten, kurikulumaren barruan



xxxxxxxxxxxxxxxx

Euskal dantzak eta bertsolaritza irakasgai izango dira ikasturte honetatik aurrera San Bartolome, Txomin Aresti, Altzaga, Artatza eta Lamiakoko ikastetxeetan, eskola orduetan. Urtarilean ekingo diete bi ikasgaiei, euskal kultura umeen ikasketetan integratzeko, eta etorkinei integratzen laguntzeko helburuagaz. Guztira 359 umek parte hartuko du irakaskaiotan.

Zehazki, euskal dantzakaz, gorputz malgutasuna, psikomotrizitatea eta gorputz eritimoa landuko dituzte, Erandioko Goialde Dantza Taldeko kideakaz.

Bertsolaritzagaz, berriz, hainbat helburu bete gura dituzte. Batetik, hizkuntza eta kulturari dagozkionak: ikasleen ahozko adierazpidea aberastu, komunikazio estrategia arra-

kastatsua landu, euskararen erabilera sustatu eta bertsogintzaren eta ahozko euskal literaturaren ezagutza bultzatu gura dituzte.

Bestetik, bertsogintzari dagozkion helburuak daude. Besteak beste, ikasleak bertso bat idatziz egiteko gai izatea lortu gura dute, baita bat-batean piezak osatzeko gai izatea ere, jarduera gero eta autonomoagoa lortzea, eta bertsoen balio anitzak barneratzea.

Euskal dantzako klaseak jasoko dituzte hirugarren eta laugarren mailetako ikasleek, soinketa irakasgaiaren barnean; bertsolaritzakoak, aldiz, bosgarren eta seigarren mailetakoek. Ikastaroen gastuak bere gain hartuko ditu Udaleko Hezkuntza Sailak, eta haurrek, maiztean ospatu ohi den Euskal Kulturaren Astean erakutsiko dute ikasitakoa. ○

BERBALAMIÑEREN IKASTAROAK PREST

Alboka, txalaparta, panderoa, euskal dantzak, trikitixa eta bertsolaritza ikastaroak antolatu ditu euskara hutsean Berbalamiñe Euskara Taldeak, aurten ere. Asteazkenean eta arratsaldean eskainiko dituzte. Izena emateko, ondoko telefonora deitu besterik ez dago: 695753110.

OLGETAN EGITASMOAN IZEN EMATEA IRAILAREN 22TIK 29RA

Zabalduta dute jadanik Olgetan euskaraz egitasmoan izena emateko epea. Irailaren 22tik 29ra bitartean hurbildu beharko da Euskara Zerbitzura, Kultur Leioara. Arratsaldetan umei zuzendutako jolasak eta tailerrak egingo dituzte euskaraz; zehazki, 1997 eta 2003 urteen artean jaiotakoek parte har dezakete. Magisteritza edo aisialdi-begirale tituludun begiraleek emango dituzte tailerrak, 17:30etik 19:00etara. Egunero egongo dira ekintzak, baina bi, hiru, edo bost egunetan joateko aukera egongo da. Ordu kopuruaren arabera ere, prezioak aldatuko dira. Urriaren 6an hasiko dira jarduerak.

EGUERDIAN ERE EUSKARAZ JOLASTU

Eskoletako jolastorduetan ere, euskaraz jostazeko begiraleak izango dituzte herriko eskola publikoetako ikasleek, asteko hainbat egunetan. 6 eta 12 urte bitarteko haurrei zuzenduko zaie ekimena, eta libre izango dute parte hartzea.

udondo
taberna

eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre,2
T: 94 463 00 45 - LEIOA

ERROTULOAK



ERA GUZTIETAKO ERROTULOAK eta IMPRESIO DIGITALAK

egiten ditugu

e-mail: hurstab@euskalnet.net

Iparragirre etord. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tfno. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83



- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskalduna.
- Ingelera 4 urtetik aurrera.
- Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia (sukaldea bertan), merienda.
- Eskolaz kanpoko ekintzak: musika, gitara, adierazpena, saskibaloia, eskupilota, panderoa, bertsolaritza, euskal dantzak...
- Frontoia, futbito zelai estaliak, berdeguneak...

Artatza Auzoa 84, LEIOA • Tlf: 94.464.23.64 / 94.464.33.07
e-mail: leioa@ikastola.net • www.ikastola.net/ikasweb/leioa

Eskola Escuela

Plater-Tiro eta Ehizarako Kirol-Ekartera



Taberna eta kartutxo denda

Posta Kutxa 33 Leioa
Tel: 94 633 81 59

Rebeca, Jessica, Ander eta Michael > Elkartruke programako partaideak

“Beste kulturak errespetatzen ikasi, eta beste herrietako egoerak ikusteko balio izan digu esperientziak”

Udalak antolatutako Elkartruke programan parte hartu zuten herriko eta Irlandako hainbat gaztek, bakoitzaren kultura ezagutzeko, irailaren hasieran. Rebeca Ojenbarrena, Ander Olazabalaga, Jessica Nugent eta Michael O’Flanagan dira batzuk.

—Zertan datza Elkartruke egitasmoa?
—Irlanda eta Euskal Herria, herri bien kultura ezagutzeko helburua du programak, eta bide batez, ingeles apur bat hitz egiteko, eta ondo pasatzeko ere. Hasiera batean, Grezia eta Frantziatik ere etortzekoak ziren hainbat lagun, baina azkenean, dublindarrak soilik etorri dira.

—Zuek zergatik hartu duzue parte?
—Beste herri bat, bertako kultura, historia, jokoak eta jendea ezagutzeko, batez ere. Herri bakoitzeko zortzi lagun gaude, guztira hamasei. Norberarentzako arruntak diren gauzak, arraroak gertatzen zaizkio besteari, eta hori ari gara ezagutzen.

—Eta antzekotasunik somatu duzue Irlanda eta Euskal Herriaren artean?
—(ANDER ETA REBEKA) Musika entzun dugu, eta konturatu gara horretan antzekoak garela. Beste arlo batzuetan oso bestelakoak gara, ordea; jaterako garaian, berbarako. Irlandarrak garbitasunerako arraroak dira, gainera; adibidez, dutxara ez dira



Rebeca, Jessica, Ander eta Michael aurrean, egitasmoaren gainontzeko partaideakaz

biluzik sartzen, ez da ohikoa beraiantzat. Bestalde, historian ere antzekotasunak egon badaude bien artean. Hona iritsi aurretik jakin bazekiten, Euskal Herria eta Espainia ez zirela gauza bera, euskara eta gaztelera desberdinak zirela...

—(JESSICA ETA MICHAEL) Bai, hala da. Jateko modua, egunaren antolaketa eta ordutegiak desberdinak dira baina, kulturalki, musika eta jokoak, nahiko antzekoak dira. Euskal Herriari buruz ere antzeman dugu Espainiagandik oso bestelakoa dela.

—Zelan konpondu zarete elkarren artean?

—Gustura gabilta elkarrengaz, parranda eta barreak egiteko tartea ere izan dugu. Elkarbizitza gogorra dela ikasi dugu. Gainera, beste kulturak errespetatzen ikasteko, eta beste herrietako egoerak ikusteko balio izan digu esperientzia honek.

—Orain bueltako bidaiak egin beharko duzue, ezta?

—Baietz espero dugu, gustuko genuke hurrengoan Irlandan elkar topatzea. ○

Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen

94 491 13 37



Basolanak

- Zuhaitzen landaketa
- Podak
- Itxierak
- Garbiketak
- Tratamendu fitosanitarioak

Lorategien zainketa
DEITU!

T. 94 467 17 13
F. 94 467 42 41
ERANDIO (Bizkaia)
Mobila
Asier: 629 411 838
e-posta: basolanak@terra.es

Kukularrakoak Europan

Erakundeak **bisitatu dituzte** hainbat ikaslek **sariketa bat irabazi** ostean



Ikasleak Estrasburgon, Kontseilu Europarraren aurrean

Europako erakundeak ezagutu zituzten Altzaga Kukularrako DBHko laugarren mailako hogeitasei ikaslek, irailaren 7tik 14ra egindako bidaietan, hainbat irakasle lagunduta. Igaro den ikasturtean, Francisco Javier Landaburu lehiaketa irabazi zuten *Aniztasunean batuta* lanagaz. Europako herrialdeetako erlijio, hizkuntza eta etorki-

nak ditu hizpide lan horrek. Izan ere, sariketarak, Europarekiko jakituria zabaltzeko helburua du, ikastetxeetako azaldu dutenez.

Eurobask elkarteak, Europako Mugimenduaren Euskal Kontseiluak, antolatzen du sariketa, duela bost urte. Ikasleek beren kabuz egin beharreko lana dute lehiaketakoa, eta bidaiak izan da irabaz-

leen sariketako bat, Nestor Basterretxearen eskulturagaz batera.

Paris izan zuten lehenengo geldituena, hiria ezagutzeko baliatu zuten. Ondoren, Bruselan izan ziren, eta Europako Parlamentua, Europako Batzordea, Eskualdeetako Lantaldea eta Eusko Jaurlaritzak hirian duen ordezkaritza ezagutu zituzten. Luxemburgon, berriz, Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegiaren zeudela, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontzertu Ekonomikoari buruzko ebazpena kaleratu zuten. Kontseilu Europarra ere bisitatu zuten, Estrasburgon.

Esperientzia zoragarria izan zen ikasleek diotenez, asko ikasi ei zuten, eta Parlamentuagaz hunkituta itzuli dira Erandiora. Gainera, oso ondo pasatu zuten lagunakaz, eta beste herri batzuetako ikasleak batera. Altagakoei Donostiako, Deustuako eta Gasteizko hainbat lagun izan zituzten bidaiakide. Donostiarrak senior mailako irabazleak dira, EHUko Esperientziaren Gelak programako ikasleak. Deustuakoak eta Gasteizkoak, berriz, lehiaketan parte hartu zuten ikasleak dira.

Euskara ikastaroak *Cursos de euskera* 2008/2009

URRIA-EKAINA OCTUBRE-JUNIO

- * Euskalduntze eta alfabetatzea
- * Ega + HABE 1 + HABE 2 + HABE 3 tituluak
- * Ordutegi guztiak
- * Euskara zerbitzuaren beka eta dirulaguntzak
- * Ekitaldiak, euskaraz
- * BOGA, internet bidezko irakaskuntza

- * Euskaldunización y alfabetización
- * Titulos Ega + HABE 1 + HABE 2 + HABE 3
- * Todos los horarios
- * Becas y ayudas del servicio de euskera
- * Actividades en euskera
- * BOGA, enseñanza por internet

MATRIKULA EPEA ZABALIK

PLAZO DE MATRICULA ABIERTO

*CLASES en Astrabudua (Atxutegi 6) y en Erandio (Bekoa Ikastetxea)

HABEren dirulaguntzaz



ERANDIOKO UDAL EUSKALTEGIA
Bekoa Ikastetxea Desanexión kalea, 4 3 solairua Tel.: 94 467 60 75
erandio.eusk@euskalnet.net / www.erandioko-udala.net



GURE MERKADILLO, IRAILAREN AZKEN ASTEBURUAN

Biltegi geratu zaizkien azken produktuak ohi baino merkeago salduko dituzte Gure Merkadillo ekimenean; irailaren 27an eta 28an. Herriko merkatarien elkarteak antolatuko du, eta beste hainbat herritan aspaldi egiten den ekimena bada ere, lehen aldia da Sopelan. Udaletxeke plazan kokatuko den karpan egingo dute. *Stock*-ean lotu diren produktuak saltzeaz gainera, herriko komertzioa sustatu gura dute ekimen honeguz, eta giroa sortu herrian.

Informazio gehiagorako: www.comerciantesdesopelana.com

UDAL MUSIKA IKASTAROETAN IZENA EMAN DAITEKE

Irailaren 30era arte eman daiteke izena Udal musika tailerretan. Trikitixa, txistua, abesbatza, gitarra klasiko eta elektriko, atabala, pianoa, musika-hizkuntza eta hastapen tailerrak eskainiko dituzte. Matrikulatu gura dutenak, astelehenetik barikura joan daitezke Los Angeles lokalera, 17:00etatik 20:00etara, edo ondoko telefono zenbakira dei dezakete: 653 74 14 71.

MUNDUKO SURF TXAPELKETAKO ORDEZKO HONDARTZA IZANGO DA SOPELAKOA

Irailaren 29tik urriaren 12ra bitartean jokatu da munduko surf txapelketako frogetako bat Mundakan. Bertan olaturik egon ezean, ordea, Sopelan burutuko dute proba. Aurreko urte batzuetan ere gertatu izan da, Mundakan olatu nahikorik ez egotea, eta kasu horietan, Bakiora aldatu behar izan dute txapelketa. Aurten Sopela izango da ordezkoko hondartza. Munduko 45 surflari onenak alkarren aurka lehiatuko dira egun horietan.

Txakolina dastatzen

Urriaren 15a arte zabalik egongo da txakolinaren katarako izena emateko epea



Bizkaiko hainbat txakolin

Txakolina dastatzen ikasteko ikastaroak egingo dituzte Hall Kulturalen. Lehen urriaren 29an izango da parte hartzeko izen-emate epea zabaldu dute dagoeneko; hilaren 15a baino lehen egin behar da. Bina orduko hogeitasei egingo dituzte ikasturtean zehar, eta bakoitzean, 24 laguntzako lekua egongo da. Nekaluz elkarrekin eman gura dituzte ikastarok.

Ordu bi iraungo du kata bakoitzak, eta alde teorikoa zein praktikoa izango ditu. Txakolina dastatzen ikasteko oinarritzko ezagupenak jasoko dituzte partaideek atal teorikoan, mahats motak eta lanketa prozesuari

buruzko informazioagaz batera. Ordu horretan ikasitakoa aplikatuko dute ondoren atal praktikokoan, enologo baten laguntzaz.

Txakolin zuriak erabiliko dituzte, horien artean, usain, kolore eta zapora zehatzak dituztenak; hartara, errazagoa izango da dastatzen ikastea. Lau txakolin probatuko dituzte partaideek. Gainera, beharrezko material guztia eskura izango dute, ikasitakoa hobeto barnertzeko. Kontsultarako materiala banatuko dute euren artean, baita fitxak laburpenagaz ere, eta dastaketa praktikorako behar diren elementu guztiak; hala nola, diptikoak, lau txakolin mota eta ur minerala. ○

Ander Deunak 40 urte

Zazpi umegaz elizako lokaletan hasi zen ikastolak, ibilbide oparoa egin du hamarkadotan



70eko urteak, Ander Deuna egungo toki berean kokatu eta gutxira

Guraso, irakasle eta laguntzaile askoren lanaz sortu zen Ander Deuna Ikastola orain 40 urte, beste ikastola asko lez. Francisco Franco bizirik zela jaio zen Ander Deuna 1968an, zazpi ume eta irakasle batez, interneteko beraien gunean azaldu bezala. San Pedro elizako areto batean ematen zuten eskola. Irakasle eta gurasoen jabe goan zegoen ikastola orduan, urte batzuk beranduago Kooperatiba Elkarte gisa eratu arte. 1974an gertatu zen hura.

80ko urteetan eman zuten hamazortzi urte arteko ikasketak eskaintzeko urratsa. Hamarkada horretan aldaketa garrantzitsuak egin zituzten kudeaketa arloan, antolaketa eredu berregituratuz. Ondorioz, gobernu eta funtzionamendua bereizi zituzten. Lehenak norabideak zehazteko ardura hartu zuten, eta bigarrenak, planak gauzatzeko.

Hurrengo hamarkada hastegaz batera iritsi zen lehenbizikoz Sopelara Ibilaldia, Bizkaiko Ikastolen Jaia. Ikastola bakarrik antolatu zuen lehen Ibilaldia izan zen hura, *euskani ala ezkan* leloduna. 90eko lehen urte horietan bizi izan ziren eztabaida handiak ikastoletan, eta askok

sare publikoan integrazteko erabakia hartu zuen; Ander Deunak ez, ordea.

1996an Guraso eta Langileen Kooperatiba Elkarte bihurtu zuten Ikastola, langileen ekarpen ekonomikoaz. Handik aurrera parekotasuna dute ebatze-organoei gurasoak. Mende berriagaz, gainera, Herri Onurako Guraso eta Langileen Irakaskuntza Kooperatiba Elkarte izendapena jaso zuen Ander Deunak. Lau urteren bueltan Ibilaldiaren antolaketaz arduratu zen berriro ere, Leioako Betiko Ikastolagaz batera. Aurten, berriz, 40. urteurrenerako,

Urriaren 4an jaia egingo dute ikastolan bertan 40. urteurrena ospatzeko

ospakizuna prestatu dute urriaren 4rako ikastolan bertan.

Atzera begira jarri, eta gezurra dirudi ehunka ikasle eta instalazio apartak biltzen dituen ikastola, zazpi umegaz hasi izana. Ikastolen hezkuntza egitasmoagaz aurrera jarraitzeko arrazoirik ez zaie falta. ○

LAIKAK Taberna
Bentatu, 2
48600 Sopela
Tlf. 94 676 03 28

Egunkariak prentsa eta aldizkariak
nahi izanez gero, etxera eramaten dizugu egunkaria!!!
Algortako etorbidea, 78
T.: 94 491 27 34

DIDAK HAMILTON IDIOMAS

Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
- Eskolaz kanpoko ekintzak
- Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
- Talde txikiak
- Ingalaterran eta Estatu Batuetan egonaldiak

Dr. Landa, 6 / 48600 Sopela.
Tel: 94 676 30 12
info@didakhamilton.com

4 bide pinturak



Loroño 2 • Tlf/Fax 94 676 29 92 • SOPELA
Iturribarria 3 • Tlf: 94 442 01 55 • BILBO

ANDER DEUNA IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta berrikuntza

Gatzarrine z/g. SOPELANA
Tfnoa.: 94 676 02 66
Email.: sopela@ikastola.net

IPIIN KONTALARIA ETA TXAPELKETA ARTISTIKOAREN SARIAK IRAILAREN 22AN

Mugikortasun iraunkorraren astea egin dute irailaren 16tik 22ra eta hainbat ekimen burutu dute haren barruan; horietako bat txapelketa artistikoa izan da. Irailaren 19an burutu zuten, ostiralean, 13 urte baino gutxiagoko haurren artean; hiru mailatan banatu zituzten. Euren lana saritzeko ekitaldia egingo dute irailaren 22an, haur liburutegian 19:00etan. Horren aurretik ipuin kontalaria arituko da, arratsaldeko 17:30etik aurrera. Gainera, tailer bereziak egingo dituzte arratsaldean zehar. Adin guztietara egokituko dituzte. Txapelketa artistikoan parte hartu duten guztien lanak, bestalde, aste osoan zehar ikusgai egongo dira erakusketa gelan.

Nagusientzako ikastaroak

Irailaren 26a baino lehen eman behar da izena tai-chi edo aretoko dantzak ikasteko, besteak beste



Nagusien Etxea herriaren erdigunean dago

Sasoitsu jarriko dira herriko nagusiak urritik aurrera. Nagusien Etxean antolatu dituzten ikastaroek emango diete horretarako aukera. Izan ere, gimnasia, tai-chi, aretoko dantzak eta ordenagailuak erabiltzeko ikastaroak egingo dituzte 60 urtetik gorako laguntzat. Hori bai, parte hartu gura duen orok berehala eman beharko du izena, irailaren 22tik 26ra bitartean.

Urtero legez, Ikastaro bakoitzak iraupen jakina du, eta finkatuta daude egutegia zein ordutegia. Beraz, Nagusien Etxera bertaratu, eta galdetzea izango da onena

izena eman aurretik. Gainera, informazio gehiago eskura daiteke bertako oholzetan.

Zehaztasunera joz, gimnasia ikastaroa hiruhilabetekoa izango da, eta prezioa, hamabi euro. Tai-chi, berriz, urte osoan zehar ikasi ahal izango da, 40 euroren truke. Iraupen berbera izango du aretoko dantzen ikastaroak, baina merkeagoa izango da, 30 euro. Ordenagailu ikastaroa izango da laburrena, hilabetekoa. Gainera, doan eskainiko dute.

Nagusien Etxetik esan dutenez, hogei bat lagunek parte hartzen dute, eta errepikatut egiten dute hurrengo urtean. Beraz, ez denborarik galdu, eta zatoz lehenbailehen! o

Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen

94 491 13 37

AIXERROTA BHI
24 URTE EUSKARAZ IRAKASTEN

- TEKNOLOGIKOA
- BATXILERGOAK
- NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
- GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

DERRIGORREZKO BIGARRREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK
ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)

INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / 94 491 17 86

Haur zein guraso, euskaraz

Umeez olgetan euskaraz egiteko, eta gurasoek euskara ikasteko ekimenak



XXXXXXXXXXXX

Euskara erabilera sustatu guran, hainbat ekimen abiatu ditu Uribe Kostako Mankomunitateak ikasturte honetarako. Olgetan euskaraz antolatu dute haurrentzako, eta Hasiberriak eta Gurasoak Lagunduz euskalra ikastaro bereziak gurasoentzako. Gorliz, Lemoiz, Plentzia, Sopelana eta Urdulizgo herritarrei zuzendu dizkiete ekimenak.

Gurasoentzako ikastaroak urrian abiatuko dira, hortaz, urriaren 1era arte dago izen ematea, Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitatean eta euskaltegietan. Euskaraz ez dakiten, edo euskara maila oso txikia duten gurasoentzako beren-beregi prestatutako ikastaroak dira, eta 2009ko ekaina arte iraungo dute.

Haurrak, berriz, irailaren 1etik ari dira euskaraz olgetan, eta urria bukatu arte ibiliko dira. Hamar urte bitarteko umeez parte hartzen dute ekimen honetan, “eskolatik kanpo ere euskaraz jolastu ahal izateko”,

antolatzaileek diotenez. Baina ez dira jolas hutsak, ekintzaz josita baitator egutegia.

Herri bakoitzak astegun bat du bere ekimenak garatzeko. Lemoiz, Urduliz eta Plentzian astebarruan egiten dute, arratsaldean; Sopelana eta Gorliz, aldiz, asteburuan egiten dute, eguerdian. Ekimena hasi zenetik, umeez gozatu dute dagoeneko puzgarriakaz, herri kirolakaz eta birziklapen tailerrez.

Euskararik ez dakiten gurasoentzako ikastaro bereziak izango dira

Hemendik aurrera, ordea, badute zeregin. Iraila bukatu aurretik zientzialarien astea, eta euskal dantzen astea burutuko dituzte. Urrian, berriz, kreatibitatea, bizi sano, eta antzerkiaren astea egingo dituzte. Edozelan bukatu ezin, eta azken egunean jaia ospatuko dute, Euskaraz Olgetan ekimenari agur esan orduko.



TXIBERRI edantokia frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
T: 94 676 07 15

BASTARTEA

URDULIZ
Telefono: 940 701 120

Ajuria taberna

Andrés Cortina 2
ALGORTA



Taberna Berri
Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf.: 944 306 493

VIEJO CAFE

kopak eta giro jatorra

Alangobarri, 4 Tel. 94 460 30 03
ALGORTA

IRAKASLE ETA ZAINZAILER EUSKALDUNEN BEHARRA

Uribe Kostako Mankomunitateak begirale, zainzaile eta eskola partikularretarako irakasle euskaldunen zerrenda egin gura du. Horregatik, deialdia zabaldu du, haurrak zaindu, eskola partikularak eman edo begirale (kirol zein aisialdiko begiralea) izan gura dutenentzat. Eskabide-orriak Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitatean eskuratu ahal izango dira, urriaren 1etik aurrera.

BARRIKAN KULTUR ETXEA EGINGO DUTE GOIERRIKO ESKOLETAN

Goierriko eskola zaharra Kultur Etxe bihurtuko dute. Hartara, kultur egoitzen beharrari irtenbidea eman gura dio Udalak, "egungo egoitzak ez baitira nahikoak". Besteak beste, erabilera anitzetarako gela izango du egitura berriak, bertan emanaldiak, erakusketak zein tailerrak garatu ahal izateko. Arte plastikoen tailerra eta bainugela bi ere izango ditu.

ERROTULUAK EUSKALDUNTZEKO LAGUNTZAK GORLIZEN

Udalak diru-laguntzak emango dizkie taberna, denda edota elkarreei beren errotuluak euskaraz jartzeko. Euskara hutsean edo elebidunak izan beharko dute errotuluek. Informazio gehiago eskuratzeko Udaletxera hurbildu besterik ez dago, abenduaren 31a baino lehen.

URDULIZ

Haurreskola berria eraikiko dute 2009an



Kultur Etxearen atzealdeko zelaietan kokatuko dute haurreskola

Datorren urtean hasiko dira haurreskola berria eraikitzen. Izan ere, Udaletxeak azaldu duenez, azken urteotako hazkunde demografikoak, beharrezko egin du horrelako egitasmoa gauzatzea. Arteta kalean egingo dute eraikina, Kultur Etxearen eta etorkizuneko Osasun Zentroaren ondoan. Une honetan proiektua idazten dabilta, eta datorren abenduan esleituko dutela aurrirakusten du Udalak.

Orotara, 543,23 metro koadro izango ditu haurreskolak, eta sei ikasgelek beteko

dituzte horietatik 215,45. Gela bi jaioberriri eta urtebete arteko umeentzako izango dira, beste bi urtebete eta urte bi artekoentzako eta, azkenengo biak, bi eta hiru urte bitarteko umeek beteko dituzte. Gainera, sarrera, bilera-gela, zuzendaritza eta zerbitzuen aldea izango ditu eskolak, sukaldia, komunak, galdarak, aldagelak eta biltegiakaz. Eraikina modernoa izango da, eta fatxadetako bat, beirazkoa. Jolastokiaren ondoan parke bat egingo dute etorkizuneko. ○

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAIERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf: 460 90 31
48990 ALGORTA



KLIMATIZAZIO

INGENIARITZA

INSTALAZIOA

MANTENIMENDUA

Otxandategi tar Simon 114

48640 Berango, Bizkaia

Tel. 94 668 15 51

Faxa. 94 66829 92

e-mail: vasa@vasa.biz

Ira. 22 - Urr. 6

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: agendauk@aldizkaria.biz • Tel.: 94 491 13 37

ERAKUSKETAK

ERANDIO

► **Emakumeen eta hirugarren adinekoen egoera munduko zenbait lekutan.**

Irailaren 22tik urriaren 3ra, Josu Murueta Kultur Etxean.

GETXO

► **Getxophoto.**

Irailaren 11tik urriaren 12ra, herri osoan zehar.

► **Fotorretro. Antzinako argazkiak.** Irailaren 24tik 28ra, Algortako Geltoki plazan. Doan.

LEIOA

► **El libro de las cosas extrañas.** Kultur Leioako erakusketa aretoan, irailaren 25etik urriaren 31ra.

IKASTAROAK

PLENTZIA

► **Haur eta gazteen begirale ikastaroa.**

Gofi Portalen. Urritik eta 2010eko maiatzera. Euskaraz.

► **Sendabelarrak eta preparauak.** Irailak 29 eta urriak 1, 6, 8, 13, 15 eta 20. Gofi Portalen. 17:00etatik 19:30era. Doan.

GETXO

► **Etorkizuneko hizkuntza-harrera ikastaroa.**

Astean lau ordu, bi egunetan banatuta: 19:00-21:00 edo 20:00-22:00. Izen ematea urriak 3 arte, Erromoko Udal Euskaltegian (94 464 62 99) edo Algortako Lauaxeta AEK Euskaltegian (94 430 47 34).

MUSIKA

ERANDIO

► **Ken 7.** Urriaren 4an, Altzagako azoka zaharrean eta 21:00etan.



► **Jaiak**

Txopoetako jaiak Leioan, irailaren 26tik 29ra

Leioako auzoen artean azkena da Txopoeta jaiak ospatzen. Irailaren 26an ekingo diote festari txopinagaz, arratsaldean. Saiheski errea egongo da guztiontzat odoren eta erromeria gauean, Jo Ta Hanka taldeagaz. Haurrek ederki pasako dute zapatu goizean, jolasakaz. Herri kirolen erakusketa antolatuko dute arratsalderako eta Haitzama taldeak eskainiko du gaueko dantzaldia. Domekan ere, goizez ekingo diete ospakizunei, auzoan zehar ibiliko baitira Bilboko Gaiteroak, 12:00etatik aurrera. Gainera, herri luntxa dastatu ahal izango da Leioako Udal Bandak kontzertua jo bitartean, bazkaldu aurretik. Arratsaldean egingo dute tortilla txapelketa eta txokolatada, jaiak goxo-goxo bukatzeko.

• **Non:** Txopoetan (Leioa) • **Noiz:** Irailak 26-29

► Dantzaldia.

Irailaren 28an Josu Murueta plazan, 18:00etatik 21:00etara.

ZINEMA

URDULIZ

► **Kun Fu Panda.** Irailak 4, 18:00etan. Sarrera 2 euro.

ERANDIO

► **Superagente 86.** Irailaren 26an, Arriagan, 22:00etan.

ANTZERKIA

ERANDIO

► **Mugagabe II. Antzerki Zirkuitua.** Irailaren 27an.

LEIOA

► **Invasores del espacio kale antzerkia.** Irailaren 26an, 22:00etan, Jose Ramon Aketxe eta Errekalde plazetan. Doan.

► **Soledad y ensueño de Robinson Crusoe.**

Urriak 3, 20:30, 12 euro. Kultur Leioako Auditoriumen.

► **Zer duzu negarrez, Marie?.** Urriak 5, 12:00, 4 euro. Kultur Leioako Auditoriumen.

BESTEAK

BARRIKA

► **Butroi ibaian zehar txangoa.** Urriaren 4an, 10:30etik 12:30era.

GETXO

► **Ipuin kontalaria: Hadabruja.** Irailaren 27an, 12:30ean, La Gusana liburu dendan.

► **Tenis eta padel txapelketak.**

Irailaren 20tik 28ra, tenis eta padelerako udal zelaietan.

BERANGO

► **Ipuin kontalaria.** Irailaren 22an, 17:30ean, haur liburutegian.

GORLIZ

► **XVII. Mountain Bike Gorliz Martzak, Open Euskadi eta Bizkaiko txapelketa.** Irailaren 27an, 9:30ean.

URDULIZ

► **Irakurzaletasun sustapena: Kamishibai (8-11 urte).** Irailaren 23an, 18:00etan.

► **Irakurzaletasun sustapena: Ipuin Kontalaria.** Irailaren 26an, 18:00etan.

ERANDIO

► **Aholkularitza Sexologikorako Zerbitzua.** Irailaren 26an, 18:00etatik 20:00etara, Drogomenpekotasun gelan.

SOPELA

► **Mahuka azoka. Herriko dendarien azoka.** Irailaren 27an eta 28an.



ADITUAK GARA PINTXO ETA
BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA


[albuma]



Getxo Folk jaialdia

Irail hasieran egindako Getxo Folk jaialdiak inoiz baino jende gehiago batu du aurten, 64.000 lagun hurbildu dira Areetako Geltoki plazako karpapean, zein karpaz kanpoko Erromoko Santa Eugenia plazan egin ziren 13 kontzertuakaz gozatzera: The Chieftainsen soinu irlandarrak, Ismael Loren soinu senegaldarrak, Eliades Ochoaren kubatarrak, Korrontziren euskaldunak, Banda Gaites Llacinen asturiarrak... entzutera. Eta hementxe doaz doinu horien guztien irudietako batzuk.

Argazkiak: **Ane Basagoiti**





Argazkien

lurraldean bama

Argazkigintza, argazkilaritza, irudiak, egileak... eta horiek beste motatako arteagaz duten loturak, Getxoz jabetu dira azken boladan. Han eta hemen ikusi ditugu argazkiak; batzuek ezustean hartu gaituzte, beste batzuk saltokietako produktuei begira geundela agertu zaizkigu begibistan... hamaika bitxikeria gertatu zaizkigu Getxophotoko argazkien lurraldean. Datorren urteetan ere, gu harritzen jarrai dezatela! Hala bedi!

[berbetan]

Uda Euskal Herrian igaro ostean, Renon da berriz Joseba Zulaika (Itziar, 1948). Aurtengo ikasturte hasierak badu kutsu berezirik antropologoarentzat: bulegoa estreinatu du, Matthewson Knowledge Centre inauguratu berrian. Orain arte, Nevadako Unibertsitateko Getchell liburutegiaren parte zen Euskal Ikasketen Zentroa, zeinetan zuzendari eta irakasle den Zulaika. Baina uda hasieran eraikinaren parte ziren departamentu guztiak "etxe" aldaketari ekin zioten. Hainbat liburu idatzi ditu Zulaikak, haietarik azkena *ETAren hautsa* (Alberdania, 2006).

Joseba Zulaika

Antropologoa barne gogoetetan sakontzen

Testua: **Esti Ezkerra** / Argazkia: **Argazki Press**

—Zure izena entzun eta burura datorri-
gun lehen gauza, nola ez, antropologia
da. Azken batean, hark egin zaitu
Atlantiar ozeanoko alde bietan ezagun.

—Neure krisiek, neure porrot pertsonalek
eraman ninduten antropologia ikastera.
Seminarioan ibili nintzen zenbait urtez,
eta horren ondorioz krisi gogorra eduki
nuen. Neure sinesmen guztiak, bat-bate-
an, ezerezean geratu ziren. Nengoen egoe-
ra hartara eraman ninduten arrazoiak
ulertzeko, baliagarria izan zitzaidan, eta
oraindik ere, bada antropologia.

—Amerikan egin zenituen ikasketak.

—Antropologia kulturala egitea erabaki
nuenean, Espainian ez zen horrelako ikas-
ketarik. Beraz, kanpora joan behar izan
nuen, Kanadara lehenik eta Amerikako
Estatu Batuetara ondoren.

—Zure lehen ikerketa antropologikoak
Terranovara joaten ziren arrantzaleak,
izan zituen ardatz, eta haren ostean etorri
ziren zure lanik ezagunenak, indarkeria
politikoaren ingurukoak.

—Hala da, bai. Princetongo unibertsitate-

an (AEB) nintzela ekin nion indarkeria
politikoaz idazteari. Nire mentoreari esker,
beka garrantzitsua lortu nuen, eta horrek,
gaiari nahi beste denbora eskaintzea ahalbi-
detu zidan. Lehen ez dut aipatu, baina
antropologia egitearen arrazoietakoa bat,
Euskal Herritik urruntzea izan zen. Garai
hartan, kultura "exotikoren" bat aztertzen
irudikatzen nuen neure burua. Nire mento-
rea afrikanista zen, eta haren urratsak
jarraitzen amaituko nuela uste nuen. Baina
hark bestelako asmoak zituen niretzat.
Euskal Herria gai interesgarria iruditzen zi-
tzaion, eta hari buruz idaztera bultzatu nin-

baita sinbolikoena ere, sentimendu erabat
kontrajarriak eragiten zituelako; batzuen-
tzat terrorismoa zena, heroismotzat jotzen
zutelako beste batzuek. Gainera, maila per-
sonalean ere, eragin handiko gaia zen:
ETAn ibilitako lagunak nituen, jaioterrian,
Itziarren, hilketak egonak ziren.

—Bestelako gaiak ere jorratu dituzu, Euskal
Herriari eta euskal kulturari lotutakoak...

—Barandiaran, Caro Baroja eta inguruko-
en lanak euskal kulturaren izandako eragina
aztergai izan nituen bolada batez. Euskal
antropologiak, hasierakoak, euskal kultu-
raren "museifikazioa" bultzatu zuela zen

**“Indarkeria ez da diskurtso baten
produktua bakarrik; badu desioarekin eta
eromenarekin, Freudek aipaturiko
heriotza instintuarekin lotura”**

duen. Baiezkoa eman besterik ez nuen,
baina baldintza bat jarri nion: indarkeria
politikoa aztertuko nuen, horixe zelako
Euskal Herrian gauzarik dramatikoena,

nire argudioa. Bilboko Guggenheim
museoaren gainean ere jardun dut. Azken
horren harira, liburu bat argitaratu nuen:
Crónica de una seducción, Thomas Krens-



en planak modu kritikoa azaltzen zituen. — ...baina indarkeriaren diskurtsora bueltatzen zara beti. —Gaia bada, berez, erakargarria. Bestetik, euskal indarkeria politikoaz ari nintzela hemen, AEBetan, terrorismoaren inguruko ikasketek interes handia piztu zuten, eta oraindik ere, azken urteetako gertaerak direla eta, indartsu jarraitzen dute. Orduan Akademia inguruan sortu diren eztabaidak Euskal Herriko testuingurura moldatzen saiatu naiz. Horrela, indarkeriaren izaera diskurtsoboaz, hau da, nola diskurtsuak berak eragiten duen fenomeno, aztertu nuen duela urte batzuk. Une honetan, fenomeno horien subjektibitatearekin interesatuago nago: nire argudioa da indarkeria ez dela diskurtsu baten produktua soilik; badu desioarekin eta eromenarekin, Freudek aipatutako heriotza instintuarekin nolabaiteko lotura. Horretaz ere zeozer esan nuen duela urte bi, ETArekin su-etenaren harira idatzi nuen *ETAren hautsa*-n, baina liburuaren helburu nagusia ETAk neure belaunaldiarengan izandako eragina azaltzea zen. Bushen politika antiterrorista hizpide duen nire azken lanean, berriro heldu diot gaiari; liburua argitaratzeko zain nago orain.

—Hori da zure azken proiektua, beraz. —Argitaratzeko zain daudenei begira bai. Baina idazketari dagokionez, beste kontu batzuetan murgilduta nabil orain. Gaia duela urte batzuk etorri zitzaidan burura, Bilboko museoez idazten ari nintzenez. Konturatu nintzen Bilbon fraide egon nintzela, Bilbon gura nuela nik santu izan, Bilbon gertatu zela krisia, antropologiara eramango ninduen. Orduan pentsatu nuen urte haien inguruan idatzi behar nuela, nire belaunaldikoek jasandako aldaketan etnografia erredaktatu: nola joan ziren aldatuz gure sinesmenak, zein gure desioak; nola ez garen duela berrogei urteko subjektu berak. —Zeozer aurrera dezakezu lan horretaz? —Ez zait batere erraza egiten ari gaiari nondik heldu erabakitzea, baina nire ondorioa zera da: nire belaunaldiari begiratu eta sarri-

tan pentsatzen dut galtzaile belaunaldi bat garela. Seminaria joan ginen denok, ikasketako modu bakarra zelako hori. Baserri mundukoa bazinen, edo behe klasekoa, nire kasuan, ez zegoen besterik. Seminarioak eragin handia eduki zuen gure pentsamenduan, eta hura amaitu zenean ere, hortxe jarraitzen zuen guran, desiatzeko modu infinituak, baina orain,

“Gure belaunaldia aurriz betetako belaunaldia da, sinetsi zuen ezerk ez diraelako zutik”

seminarioa bukatuta, mundu guztiaren salbazioan eta santutasunean sinetsi beharrean, aberrian, haren alde oro ematearen sakrifizioan jarria genuen esperantza. Hortik ETArekiko, zein orduko ideologiekiko, inuzente samarrak zirenak, gure belaunaldiak zuen lilura. Kontua zera da: dena ematen zenuela sinesten zenuen jainko horrengatik. Porrota gerora etorri zen, ohartu ginenean, azken batean gure desio guztiak mamu baten atzetik zebiltzala. Horrengatik uste dut gure belaunaldia aurriz betetako belaunaldia dela, sinetsi zuen ezerk ez diraelako zutik. Baina dena da ikuspuntu kontua, dena da objektu paradaktiko bat. Izan ere, Bilboko etnografia honekin konprobatu nahiko nuke zenbateraino ez ote zen gure erorialdia gure grazia unea. Hau da, kristau izateari utzi genio-

“Idaztea salbazioa izan daiteke, hil ala biziko kontua bihur daiteke”

nean orduantxe bihurtu ginen benetan kristau. Jesukristok, gurutzean zela, “zergatik utzi nauzu, aita?”, bota zuenean, orduantxe erakutsi zuen, bera zela Jainkoaren seme. Bada geuk kristautasuna, haren barruko logika beragatik, utzi genuenean orduan ekin genion gure liberazioari. Gauza bera gertatu zen ideologiek.

Honekin esan gura dut aurriz azpian egon daitekeela nire belaunaldiaren benetako liberazioa. Horixe da lan honekin bilatu nahi dudana.

—Traizioak zer leku du, azaldu duzun tesuinguru horretan? —*ETAren hautsa* lanean goraiatu egiten nuen mota bateko traidorea. Kristautasunak badu bere bihotzean alderdi perbertso hori:

Jesukristok beharrezko zuen Judas bere misio jainkotiarra aurrera ateratzeko, eta horrek zera planteatzeko digu: benetako heroia, apostolu maitatuena ez ote zen Judas izan? Alegia, traizioa maitasunaren eskakizun izan daiteke: benetan maite banauzu, izan zaitez nigandik libre; benetan maite banauzu, abandona nazazu. Azken berrogeita hamar urteotan hainbeste aldatu den gure gizarteak, geure buruei traizioa egitea exijentzia izan zen guretzat. Erligioari bizkarra ematea gauzarik traumatikoena izan zen, gerora ohartu ginen aberasgarria ere bazela, baina hori egitera behartuta sentitu genuen gure burua. —Zure ibilbideari egin diogun erreparosaren ostean, komenigarria da esatea, poesia idazten hasi zinela? —Apu bat harrigarria gerta daiteke, baina egia da: poesia izan zen nire lehen pasioa.

horretan. Orduan konturatu nintzen idaztea salbazioa izan daitekeela, hil ala biziko kontua bihur daitekeela. Gerora ez dut poesiarekin jarraitu, baina antropologia haren ordezko bilakatu da, antropologiaren bitartez idazten jarraitzen baitut. —Idazten jarraitzen duzu... Euskal Herriko kanpo zaudela. —Kanpoan egon izan ez banintz, ez nituzkeen orain arte idatzitako gauza gehienak idatziko. Esan beharra dut kanpoan Euskal Herriko bano gusturago bizi naizela. Maiztasun handiz joaten naiz, baina orain hau, Reno, nire tokia dela sentitzen dut. Kanpoko euskalduna sentitzen naiz, han nagoenean bano euskaldunagoa. Kanpoan egotea, hango zenbait gauzatatik urrutitua izatea... liberagarria egiten zait niri. Renoko etxe honetan pozago bizi naiz, Donostiako edertasunean bano. Paradoxa handia irudi dezake, baina nik hala bizi dut. —Esan duzun bezala, kanpoan egoteak ez du euskaldun sentitzea eragotzen. Are gehia-

go, euskal ikasketetara bideratuta dagoen zentro batean egiten duzu lan, urteak daromatza bertan euskal kultura irakasten. —Zaila da identitate kontuez hitz egitea. Euskal Herriko erabat aparte bizi nintzela, lasai eta gustura. Euskal ikasketetik kanpo, bestelako esparru batean lan eginda, pozik egongo nintzateke. Inoiz pentsatu izan dut AEBetako gartzela sistemari buruz idaztea,

“Kanpoko euskalduna sentitzen naiz, han nagoenean bano euskaldunagoa”

edo jokoaren munduaz. Bano kontua zera da: euskal indarkeriari buruz hasi nintzela idazten, eta nolabait, lanak berak behartu ninduela ibilbide jakin bat garatzera. Bano bakoitzari berea: Euskal Herriari zor dizkiot nire gai nagusiak, dudan oinarrizko kultura, zein pertsona moduan egin nauten pertsonaia batzuk, hala nola Oteiza, Txillia, nire

lagun idazleak, edo Maritxu bezalako figura bat. Zer esanik ez nire familia! Nire erreferentzia nagusiak han daude, bano intelektualki AEBetan hezia izan naiz, eta nire aportazioa AEBetan da neurtua, nahiz eta Euskal Herriko ere oihartzuna duen. —Uda Euskal Herriko igaro duzu. Zer iruditu zaizu hango egoera? —Hain da zaila galdera horri erantzutea...

aldizkaria **etxean**
jaso nahi baduzu

HARPIDETZA > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena.....Deiturak.....
Kalea & zenb.....Herria.....
e-mail.....Telefonoa.....

Urtero 20 euro 30 euro 50 euro beste kopuru bat euro
Kontu zenbakia (20 digito).

□□□□ □□□□ □□ □□□□□□□□□□

UK Uribe Kostako Aldizkaria 171 posta kutxa / 48991 Gebo / uk@aldizkaria.biz / tel.: 94 491 13 37



Iraupen garrasiak

Sustrai euskaldun eta italiarrak dituen Lina Etchesuri argazkilaria argentinar gaztearen argazkiak dituzu honakoak, iragan martxo-apiril aldean, Palestinara egindako bidaian ateratakoak. Palestinar herriaren egoera latza, harresi lotsagarriak sortzen duen itolarri eta presioa, Israelgo estatuaren, sionisten, eta haien lagunen jazarpena, eguneroko borroken isla txikiak dituzu argazkiok...

Guganaino heltzen diren erresistentziaren garrasiak, eta era berean, bertan gertatzen dena salatzen duten elkartasun keinuak.

Argazkiak: **Lina M. Etchesuri**



x



x



x



x



x



x



x



x



x



x



x

x

I

Iñaki Bítxitegia

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 T: 430 23 45
Telletxe 1 T: 460 27 41

Algorta

OSABIDE HORTZ KLINIKA
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI



Bidebarri 27, behe eskuina
ALGORTA
94 430 76 96

Errotalde ileapaindegia

HARTU TXANDA TELEFONOZ!!

T: 460 38 90

Errotalde 18A / ANDRA MARI, GETXO

GAVRKO

GIZONENTZAKO
MODA



Telletxe 5
ALGORTA
T: 4607084

María Jesús

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarrí 10
T: 4910821
ALGORTA

HARTU TXANDA

[zinema]

XV. Film Laburren lehiaketa

Kultur Leioak zabaldu du dagoeneko sariketarako **izena emateko epea**



ssssssss

Leioako kultur etxeak antolatzen duen film laburren lehiaketan parte hartzeko izena emateko epea zabalik dago daborduko, eta urriaren 31n (14:00) amaituko da. Lehiaketan parte hartzeko arauak, besteak beste, hauek dira: lanaren gaia librea da, baina aurkeztuko diren film laburrek beste inon argitaratu gabeak izan beharko dute; ohiko grabazio bideak erabiliz egindako lanak, zein animaziozkoak aurkez daitezke; lanak entregatzeko euskarria DVDa izango da. Lanek gutxienez 5 minutuko eta gehienez 15 minutuko iraupena izan beharko dute, eta euskarzko edo gaztelanizko filmak izan daitezke, hau da, euskarzko eta gaztelanizko ataletan banatuko da lehiaketa.

Kultur Leioara bertaratzu (Jose Ramon Aketxe Plaza, 11; 48940 Leioa, Bizkaia) edota posta ziurtatuz bidali daitezke film laburrak. Horrez gainera, egile-en datuak (izen eta abizenak, helbidea eta telefonoa) dituen gutunazala ere bidali beharko dute lehiaketara aurkeztu gura dutenek, edo Kultur Leioan jaso daitekeen

izen-emate boletina ere aurkez daiteke. Irabazleen izenak, eta sari banaketa abenduaren 13an egingo dutela iragarri dute, Kultur Leioan bertan. Sariet dagokienez, guztira 4.200 euro banatuko dituzte, sail ezberdinetan: herriko egile onenarentzako saria 400 euro izango dira, lehiaketan bigarren postuan lotzen denak 700 euro jasoko ditu, eta lehenengokak, irabazleak, 1.000 euro. Kontuan hartu sariak euskarzko lanen, eta gaztelanizko lanen artean banatuko direla, hots, aurretik adierazitako zenbatekoak, bai euskarzko

«Euskarzko eta gaztelanizko ataletan banatuta, guztira 4.200 euro banatuko dituzte»

atalean, baita gaztelanizko atalean ere banatuko direla, atal bakoitzean sari banaketa berdín egingo dela. Gainontzeko partehartzaileek, saririk eskuratu ez dutenek, parte hartu izanaren ziurtagiria jasoko dute.

Informazio gehiago: www.kulturleioa.net
edo 94 607 25 78

Punk/rocka Uribe Kostatik

Carne de matadero bigarren diskoa autoekoitzi du **Patada en la Papada** taldeak



Informazio gehiago: www.myspace.com/patadaenlapapada

Urteak dira Patada en la papada taldearen berri izan genuenetik, eta ardoa legez, hauek ere denboraren poderioz hobera egin duen Uribe Kostako punk/rock taldea da gaur egun. Halere, urteen joan-etorriak gora-beherak sortu ditu, eta taldea osatzen duten kideak ere aldatuz joan dira, gaur egun hauek dira taldekideak: Aitor (ahotsa), Iker (baxua), Iban (bateria), David eta Ekaitz (gitarak).

Orain dela urte batzuk plazaratu zuten taldearen izen bereko aurkezpen maketa/cd-a, eta oraintsu kaleratu dute euren bigarren lana, *Carne de matadero* dis-

koa. Gaztelera 19 abestik osatuta dago lan berria, eta eurek azaldu legez *“kantuen gaiak eta letrak salatzaileak dira, munduan zehar, eta hemen gertatzen dena salatzen dugu, halere zelan edo hala zoriontsu izateko alternatibak eskaintzen abalegintzen gara”*.

Lan berria Discos Suicidas zigiluaren webgunean edota Algortako UK tabernan (beste taberna askotan ere bai) eskura daiteke; baina euren zuzeneko indartsuaz gozatu gura duenak urriaren 25ean izango du aukera, Getxo Antzokian izango da zita iluntzeko 20:00etan. ○

Harremanetarako: 628 75 29 60

diskoak

Gauari gauarekin
Lauroba
Gor



2006an plazaratutako maketaren ostean Donostiako pop-rock taldearen lehenengo lan luzea da *Gauari gauarekin*. Karlos "Txap" Osinaga (Lisabö) teknikariagaz batera grabatu duten lanerako hamalau abesti sortu ditu laukoteak. Disko berria erosteko edo jaisteko aukera ematen dute euren webgunean.

Momo eta beste izaki...
Elurretan
autoedizioa



Ordiziako taldearen laugarren lana 21 abestik osatzen dute. Oraingoan, pop oinarriak galdu barik, folkaren eta musika esperimentalaren eremuera hurbildu dira. Euren esanetan disko hau haurrentzako eta helduentzako aproposo da. Lana euren webgunean bakarrik dago eskuragai: www.elurretan.com

Backyard Babies
Backyard Babies
Spinefarm



Nässjö herrian (Suedia) 1987 aldera sortutako taldearen seigarren lanak taldearen izen bera daroa. "Eskandinavian Rock" deritzenaren ikur den hard rock taldearen lan berriak hamahiru bat kantez osatuta dago. Nicke Borg, Dregen, Johan Blomquist eta Peder Carissonek azaaldu dutenez aurkezpen bira laster hasiko dute European zehar.

Fermin >

Lan berria urri amaieran



Fermin zaleak urduritzen hasiak ziren honezkerok, irrikatan... Udako bere kontzertuen gabezia, lan berriaren baten zurrumurru eza...

Baina muguruzatar goratuena lanean ibili da, eta dagoeneko bere lan berria noiz kaleratuko den jakinarazi du: urriaren 31n. Azken diskoen izenburuen joerari jarraituz, *Asthmatic Lion Sound System* da lan berriaren izena. Bere web orriko azken komunikazioan azaldu duenez, *“Duela ia 10 urte dira Brigadistak Sound System diskoa argitaratu zela, disko berri honek brigadisten ildo eta jarrera parekoa jarraitu du. Munduan zehar eginiko grabaketak jasotzen dira: Irun, Berlin, New York, Tokyo, Kingston, Dublin, Jerusalem, Paris, Madril, Kuala Lumpur, Bartzelona... hirietan harturiko soinua. Eta sound system global baten antzera, musikari askoren parte hartzea nabarmetzen da”*. Zain gaude!

Korrontzi >

Getxoko grabazioa

Korrontzi taldeak Getxo Folk Jaialdioko zuzeneko emanaldia (irailak 4) aprobetxatu zuen bigarren diskoa grabatzeko. *Getxo* izena izango du lan berriak, eta disko bikoitza izango da: alde batetik, kontzertu osoa (23 kanta) jasoko duen DVDa eta bestetik disko. Ritxi Aizpuruaren ustez, "Korrontzi taldeak Euskal Herriko folk nortasuna markatzen duen triki soinuekin munduara begiratu dio aurrez aurre lan berri honekin".

Informazioa: www.myspace.com/korrontzi

Getxoko Andra Mari
Gasolindegia

Etxera
eroaten dizugu
gasoleoa

Txartel hau aurkezten
baduzu 3 euroko
deskontua edukiko duzu
zure eskarian

Getxo eta Berango artean
Tel: 94 430 15 00

etorri
eta
ikusii!



ORIXA

liburudenda

Alangoeta 8 (Euskal Herria kalearekin bat)
Tfn.: 94 491 23 79
Algorta



BASALBO BASERRIA

JATETXEA

TEL./FAX: 94 491 34 91

MARTITURRI ESTARTA 18
48993 ANDRA MARI - GETXO

basalbobaserria@yahoo.com

[liburuak]

Sasoian, euskal itzultzaileak

Paul Austerren azken lana berriro ere aldeberean euskaraz

Hil hasieran argitaratu zen mundu osoan itzal handiko Paul Auster idazle estatubatuarren azkeneko lana, *Man in the dark*; eta aldeberean, hau da egun berean, plazaratu zen New Jerseykoaren lana euskaraz ere. Alberdania argitaletxeak argitaratu du Oskar Aranak itzulitako *Gizona ilunpean* eleberria.

Han-hemenka entzuten da aspaldi honetan euskal itzulpengintza sasoiari dagoela, bai zenbateko, baita kalitateari dagokionez ere. Itzulpengintzak literaturan daukan garrantziak gainera, hizkuntzan ere pisu handia dauka. Alberdaniako editore Inazio Mujika Iraolak berba dugun liburuaren aurkezpenean esan legez, "euskarentzat

«Austerren lanetatik euskaratzen den laugarren eleberria da *Gizona ilunpean*»

amets dugun normalizazio bidean pauso txikia da, baina eman beharrekoa; ez da nobela originalarekin batera argitaratu den bakarra, baina hori egin dutenak oso gutxi dira».

Gizona ilunpean eleberrian Austerrek fikzioaren eta errealitatearen mugak nahasten ditu, eta Bushen aroko AEBen politika garaian (Irakeko gerraz, irailaren 11ko atentatuek etab. jarduteko), eta Vermonten kokatu du istorioa. Literatur kritikari izandako



Paul Auster (New Jersey (AEB), 1947)

August Brill protagonistak gidatuko gaitu nobelan zehar. Auto istripua izan geroztik, alabaren etxean bizi da Brill, eta lorik egin ezin duenez istorioak asmatzen ditu ilunpetan. "Gatxa da; istorio bat bestean barneratzen da, eta fantasiazko Amerika baten inguruan hitz egiten du", esan zuen Austerrek lan honetaz, ostera, Aranaren iritziz ez da batere gatxa.


Nobela hau ez da *New Yorkeko Hirukoa*-ri (trilogia: *Kristalezko hiria*, *Mamuak* eta *Gela itxia*) esker ezagun egin zen idazlearen euskaraz plazaratu den lehenengo lana, laugarrena baino, honen aurretik hauek izan dira euskaratu eta argitaratu direnak: *Brooklyngo erokeriak* (Oskar Arana; Alberdania; 2006), *Kristalezko hiria* (Harkaitz Cano; Txalaparta; 2006) eta *Bidaiak scriptoriumean zehar* (Oskar Arana; Alberdania; 2007). ◻

liburuak



Nur eta irlandar gnomoa
Toti Martinez de Lezea
Erein

Umeei begirako bere lehen nobela da eta, zelan edo hala, bere biloba Nur izan du goiargi. Idazle gasteiztarraren bizileku den Larrabetzun kokatzen da istorioa: aititek arratoi bat dela uste badu ere, amamaren etxeko zakarrentzian agertu den gnomoaren, eta ume talde baten abenturak ditu kontagai.



Bestea da mundua
Joan Mari Irigoien
Elkar

Altzako idazlearen *Orbetarrak* izeneko trilogia baten lehenengo atala da. 436 orrialdetan zehar Orbe sendia izango dugu gidari, eta eszenatokia XIX. eta XX. mendeeko industrializazio prozesuarekin batera emandako gizarte, bizimodu eta pentsamolde aldaketak.

[kirola]

Goiherriko txapelkunak!

Lehenengo eta behin, bejondeizuela! Urrezko domina, berriro ere... Goiherrikoen garaipenetara ia ohituta bagaude ere, beti da pozgarria. Orain 20 urte Suediako Munduko txapelketan zilarrezko domina leporatu zuten, eta oraingoan, irailaren hasieran herrialde bereko Stenungsund hirian jokatu den kirol elkarten arteko Munduko sokatira txapelketan, irlandar eta ingelesen aurretik, urrezkoa lortu dute; lur gaineko gizonetzkoen 560 kiloko mailan; 2004an AEBetako txapelketako urrezkoaren alboan ipiniko dutena.



BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

Kantxa
Kirol moda



350 M²
KIROLERAKO GUZTIA!!

URIBE KOSTAKO
KIROL DENDA

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXeko ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

Lacofris S.L. SERVICIO



94 430 52 00 Kasune, 18 · ALGORTA

Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen

94 491 13 37

Yubia > Graffitigilea eta Topaguneko V. Graffiti Lehiaketako finalista

“Graffitiak nortasun berezia dauka, ilegala, eta horrela izaten jarraitu behar du”



Yubia, Berangoko graffitigilea: www.fotolog.com/yubia

Ez da oso ohikoa emakume bat graffitiak egiten ikustea. Yubia artista berangotarra, 2002an hasi zen graffitigintzan; eta ordudanik, Uribe Kostako, zein mundu zabaleko horma askori eman die nortasuna bere lanekin. Uztailean, hirugarren saria lortu zuen, Euskara Elkartearen Topaguneko Erandion antolatutako Graffiti Lehiaketaren V. edizioan. Barruan darama graffitiak Yubiak, biziak, biziak, biziak da berarentzat.

—Zelakoa izan zen Erandioko esperientzia?

—Parte hartzen nuen bigarren aldia zen. Aurreko edizioan, Frik, Gasteizko lagun batez hartu nuen parte. KR+ taldea osatzen dugu. Aurten, bakarrik aurkeztu naiz. Esperientzia polita izan da; erraztasunak ematen dizkizute, eta hori eskertzekoa da. Hala ere, dagoen faltsukeria ez dut gustuko. Aurreko edizioan adibidez, alkatea egunkarietan agertu zen, gazteen artean graffitigintza sustatzeko ekimen bat zela esanez. Baina herrian badaude margotzeko aproposak diren horma asko, eta Udalak debekatu egi-

ten digu horietan margotzea. Ondo dago lehiaketa egunean gure lana txalotzea, baina gainontzeko egunetan ez badute jarrera berdina erakusten, ez du ezertarako balio.

—Graffitiak gain zer beste gauza egiten duzu?

—Arte Ederrak ikasten hasi nintzenez ekin nion margotzeari. Diseinuaren mundua asko gustatzen zait, eta ahal dudan guztia sortzen saiatzen naiz; ondo pasatzeko batez ere. Kamisetak diseinatzen hasi nintzen, eta internet bidez saldu nituen; jendeak oso ondo erantzun zuen. Honez gain, erakusketan pare batean hartu dut parte. Egia esan,

graffitia nire bizitzaren %50 da. Kontu honetan ez dabilen jendearentzat zaila da hau ulertzea; biziak graffitiak da niretzat.

—Zelan lortu duzu zure estilo propioa definitzea?

—Betidanik gustatu izan zaizkit umeentzako irudiak; bihotzak, aurpegi alaiak, kolore biziak... arrosa koloreko mundua. Horrelako irudiak egiten asko gozatzen dut; horregatik aukeratu dut estilo hori, ondo pasatzen dudalako, zoriontsu egiten naudelako.

—Ez da ohikoa emakume bat graffitiak egiten ikustea, ezta?

—Ez, Bilbo inguruan hiru edo lau egongo

«Jendeari arraro egiten zaio emakume bat graffitiak egiten ikustea»

gara, asko jota. Hala ere, ez dut uste graffitiaren munduan matxismoa dagoenik. Leku guztietan ondo hartu izan naute beti. Kaleko jendea, graffitiak egiten ikusten nauenean harritu egiten da, pentsatzen dute, “Zer egiten duzu zuk hemen?”. Niri atsegina egiten dit.

—Zelan ikusten duzu Uribe Kostako graffitigintza?

—Bilbo inguruko graffitigile mugimendua Getxon sortu zela esan daiteke. Gaur egun, informazio eta erraztasun gehiago daude, eta horrek, jende gazte gehiago erakarri du; baina, benetako graffiteroak, graffitiak barruan daramagunak, gutxi gara.

—Zer uste duzu behar duela graffitiaren munduak aurrera egiteko?

—Benetako graffitiak izaera ilegala du. Gure lana gaizki ikusten duen jendea hurbiltzen zaidanean, ulertu egiten dut; ez da mundu guztiak gustuko izan behar duen zerbait. Ondo dago lehiaketak antolatzea, eta hormak uztea; baina graffitiak ez da hori. Trenak edo pertsianak margotzea, gaez, ezkutuan... horixe da graffitiak. ○

SALDU NAZAZU EUSKARAZ, LEHEN URRATSA ZEURE ESKU. VÉNDEME EN EUSKARA, EL PRIMER PASO ESTÁ A TU ALCANCE.

¡ANIMATE!

BAI BAI

DENDAKETAN

CURSO BÁSICO DE EUSKERA, PARA ATENCIÓN AL CLIENTE.

DIRIGIDO A TRABAJADORES Y TRABAJADORAS DE COMERCIOS DE GETXO. TAMBIÉN CON ESPECIALIDAD EN HOSTELERÍA.

Getxo **EUSKARA BIZI**

HADE **euskaltel**

INFORMAZIOA
 UDAL EUSKALTEGIA, TEL.: 94 464 62 99 (ROMO) LAUAKETA AEEK EUSKALTEGIA, TEL.: 94 430 47 34 (ALGORTA) J. A. AGIRRE EUSKALTEGIA, TEL.: 94 460 66 71 (ALGORTA)

Euskara ikastaro bereziak

TALDE MISTOAK

On-line eta aurrez aurrekoak



4. MAILA

300 orduko ikastaroa (150 ordu ikasgelan eta 150 ordu bakarrikako lanean).

- 10 ordu astean:
 - 5 ordu euskaltegian (astean bi egunetan, 2,5 ordu eguneko).
 - 5 ordu bakarrikako lanean (etxean tutorearen gidaritzapean).

2. ETA 3. MAILA

336 orduko ikastaroa (132 ordu ikasgelan eta 204 ordu bakarrikako lanean).

- 10 ordu astean:
 - 4 ordu euskaltegian (astean bi egunetan, 2 ordu eguneko).
 - 6 ordu bakarrikako lanean (etxean tutorearen gidaritzapean).

MASTITXU Leioako Udal Euskaltegia Tel.: 94 464 00 02
 Iparragirre Etorbidea, 78 Tel. eta faxa: 94 480 25 80
 48940 - LEIOA e.posta: mastibulego@leioa.net
 www.euskaltegileioa.com



RENAULT LEIOA BERRI

Gure autokarabana erakusketa berria bisita ezazu

www.renaultleioa.com



UDA BEREZIA '08 LEIOA BERRI-N

www.renaultleioa.com

Iparragirre etorbidea 94, LEIOA. Tel: 94 480 46 02

Anai-bi gozotegia

Etxean egindako zaporerik gozobenak



Anai-bi gozotegiko lagunak

Erromoko gazte ekintzaile bi dira Gorka eta Jon Ander Oribe. Leioako Ostalaritza Eskolan ikasketak bukatutakoan, hainbat okindegi eta jatetxetan lanean ibili ziren. Besteentzako lan egiteaz nazkatuta, euren denda zabaltzea erabaki zuten. Hemendik eta handik bila ibili ostean, Santurtzin aurkitu zuten lokal aproposa. Otsailean zabaldu zituen ateak Anai-bi gozotegiak. Lana gogoz egin behar izan duten arren, pozik daude emaitzagaz: "Egunero lan egin behar dugu, eta goizean goiz esnatu gainera. Hala ere, gogorragoa izango zela uste genuen. Jendeak oso ondo enantzun du".

Denda handia daukate Oribe anaiek, eta horrek denetarik eskaintzeko aukera ematen die. Tartak, pastelak, opilak, ogia... dena

bertan egina. Etxeko berezitasuna trufak eta hostopila dira. Gabonetarako, errege-opilak, turroiak eta polboroiak prestatuko dituzte: "Lan handia izango da, baina ohitunak agintzen du. Inaila edo urrian hasi beharko dugu lanean. Lehenengo urtea denez, zaila egingo zaigu kantiitateak ondo kalkulatzeko, baina datorren urterako ikasteko balioko digu". Astelehenetik barikura goiz eta arratsalde, eta asteburuetan goizez zabaltzen dute. Nahi izanez gero, enkarguak hartzen dituzte.

Aurrera begira, denda gehiago zabaltzeko asmoa daukate: "Ni ez naiz bategaz konformatzen". Gazteak dira oraindik, eta ibilbide "gozoa" daukate aurretik.

Particular Sabino Arana 5, SANTURTZI
 Tel.: 94 483 91 39

OSABIDE HORTZ KLINIKA

Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behe eskuina
 ALGORTA
 94 430 76 96



gOZOLABEA

galdaretxe

- Maidagan, 35 GETXO Tel. 94 491 11 25
- Mayor, 17 AREETA Tel. 94 464 77 29
- Sabino Arana, 67 LEIOA Tel. 94 464 40 58
- Telletxe, 11 ALGORTA Tel. 94 460 32 14
- Sabino Arana, 9 SOPELA Tel. 94 676 11 01

JUAN-MARI



Harategia eta txarkuteria



LAS MERCEDES 31 • TEL.: 94 464 41 25
 AREETA

Asador Goiezi



- Zabalik egunero
- Eguneroko menuak
- Enpresa menuak
- Menuak nomberaren gustura
 - Egunero karta berezia
 - Gaez dastatzeko menua astelehenetik- ostegunera
 - Jaun hartze bazkariak zure gustura prestatzen ditugu.

Aretxondo 14
Algortako Portu Zaharra / Getxo
Erreserbak: 94 491 25 93



ITXASGANE
prentsa • aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Aritluze z/g • Tel.& Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

BATIZ KRISTALDEGIA

- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN
- IZPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z/g (Sarrikobasoerikin bat)
T:94 430 69 42 /ALGORTA

GOIZEAN

"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pentsa"
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Litxarriak

Orduña Mendatea 1 Telletxe 13
T: 430 22 13 T: 460 02 88
GETXO ALGORTA

Usategi kafetegia



Usategi parkea z/g,
Algorta

*Telf. erreserbak: 94 460 64 13

[horoskopoa]

<p>URA</p>  <p>(Abenduak 21 urtarrilak 19) Buruko mina daukazunean hobe duzu etxean gelditu, ingurukoak izorratu nahi ez badituzu, behintzat. Manta, burua nekatzea eskatuko ez dizun filma eta krispetak; hori da behar duzuna.</p>	<p>OTSOA</p>  <p>(Urtarrilak 20 otsailak 18) Lanerako buelta gogorra izaten da beti, baina aurtengoa inoiz baino gogorragoa izan da. Zergatik? Agian ordenagailua lekuz aldatu, eta bulegoa berriro apaindu beharko zenuke. Pantaila-babesean oportetako argazki bat jarri egizu, badaezpada.</p>	<p>ADARRA</p>  <p>(Otsailak 19 martxoak 20) Ettxeko lanak egiteko ordua heldu da. Uda osoa jairik jai eman duzu, eta orain lanez gainezka zabilzta. Gutxienez erratza pasa, eta leihoak garbitzen dituzun bitartean, badaukazu zegaz akordatu. Gora Bilboko Aste Nagusia!</p>
<p>AITZURRA</p>  <p>(Martxoak 21 apirilak 19) Erretzeari utziko diozula? Gehienek egiten dituzte promesak urtea hastean; zuk berriz, ikasturte berriarekin batera. Baina, gauzak esatearekin ez da nahikoa. Hitzak haizeak eroaten ditu.</p>	<p>HOSTOA</p>  <p>(Apirilak 20 maiatzak 19) "Gero egingo dut ama! Ez izan astuna, gero egingo dudala esan dizut". Momentuan egiten ez diren gauzak, egin barik lotzen dira gehienetan. Ondo baino hobeto dakizu zuk hori; baiza zure amak ere. Geroa alferraren leloa.</p>	<p>EGUZKIA</p>  <p>(Maiatzak 20 ekainak 18) Gau bateko harremanak ez zaizkizu falta izan udan. Bazuekin zein besteekin gustura ibili zara, eta lagunak inbidiaz begiratu zaituzte. Baina orain, negua dator, eta zinemara bakarrik joan beharko duzu berriro ere.</p>
<p>GARIA</p>  <p>(Ekainak 19 uztailak 18) Arrautzei esnea botaz gero, askoz hobeto gelditzen da patata tortilla. Porruak ere, zapore berezia ematen dio. Ez duzu txapelketa batera aurkeztuko, baina gauzak ondo egitea gustatu izan zaizu beti. Hala ere, inoiz ez da amamarena bezalakoa izango.</p>	<p>LASTOA</p>  <p>(Uztailak 19 abuztuak 17) "Ez dira betiko garai onenak; azken finean izaki hutsak gara". Abestiek egoera animikoekin asmatzen dute beti. Irratia piztu eta zast! Hor dago sentitzen duzuna definitzeko balio duen kantua. Gari alu hori!</p>	<p>IRATZEA</p>  <p>(Abuztuak 18 irailak 16) Ortografia gorroto izan duzu beti. Gehienetan esaldiak ulergarriak dira, akatsak badituzte ere. Baina, letra batek hitzaren zentzua aldatzen duenean? Orduan komeriak. Hiztegia beti ondoan edukitzea komeni zaizu.</p>
<p>META</p>  <p>(Irailak 17 urriak 16) Goizero metroa hartzeaz nazkatu zara dagoeneko. Sarreran banatzen dituzten egunkari nazkagarri horiek hartu, atea zabaldu arte itxaron... eskerrak lagun misteriozua ondoan esertzen zaizun.</p>	<p>HAZIA</p>  <p>(Urriak 17 azaroak 15) Lentillak erabiltzen jarraitzen baduzu begiei kalte egingo diezu. Zergatik ez dituzu antiojoak erosten? Zure estiloarekin bat doan diseinu modernoren bat bilatu egizu.</p>	<p>NEGUA</p>  <p>(Azaroak 16 abenduak 20) Paletan jokatu, bizikletaz ibili, mendira joan... kirola egiteko mila aukera duzu. Ez baduzu egiten, alfer hutsa zarelako da. Ez jarraitu inork sinesten ez dituen aitzakiak asmatzen.</p>




GORLIZ IRRATIA
Urbe Kosta Irratia 107.8 FM
www.gorlizirratia.com



denborapasa

LUMA aldizkariaren eskutik

HITZ GURUTZATUAK



Ezker eskuin

1. Lapurdiko kostakoa. 2. Bizk., hari mota. Ipar Euskal Herrian, lau. 3. Sartu aditzaren oina. Israelgo erregea, Jezabelen senarra. Kontsonantea. 4. Kide egin. Ate, hitz elkarteetan. 5. Pirineoetako gailur gorena. Hertsia. 6. Izkiriatailea. Idi, hitz elkarteetan. 7. Musika nota. Itzez lotu. 8. Espainiarren EHNA. Lehena eta azkena. Atzizkia. 9. Bizk., bike. Abisuak. 10. Ahuntzaren ar. Hari, nuke.

Goitik behera

1. Adinaren poderioz hondatua. 2. Hemendik aurrera. 3. Laborarien tresna. Iodoaren ikurra. Bokala. 4. Euskal fonema. 48 ordu baru. (Zah.) Zakur. 5. Musulman xiiten erlijio-buruzagi nagusia. 6. Kontsonantea. (Errep.) Txori mota. Zeharrea jari. 7. Gabarra txikia. Joan den urtean. Nori atzizkia. 8. Marokoko hiriburua. Ibar. 9. Rutenioaren ikurra. Hegazti umeak. 10. Ipar., alaitu. Suari dario.

Soluzioak

E	K	O	I	N	R	E	K	V	
K	V	R	V	H	O	I	U		
O	R	Z	V	I	N	D			
U	T	V	Z	T	I	V	T		
T	I	V	E	T	Z	V	D		
I	X	T	I	O	T	E	N	V	
V	T	V	U	T	E	D	I	K	
R	B	V	K	V	R	S	V		
R	U	V	L	I	Z	V	R	V	
R	R	V	T	V	T	S	O	K	

asmatu eta irabazi > bi lagunentzako bazkari bat



Nor da?

- Domina pare bat irabazi berri ditu Beijinen
- Bi gurpilen gainean izerdi asko botatakoea
- Bizitzan zein ogibidean hamaika aldapa igotakoea

> Aurrekoaren erantzuna: Amets Arzallus

> Irabazlea: **Ixone Gomez***

*deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzenon artean bi lagunentzako degustazio berezia zozketatuko dugu:

UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48990 Getxo
uk@aldizkaria.biz

Usategi kafetegia



Usategi parkea z/g, **Algorta**
Telf: erreserbak: 94 460 64 13



IÑAKI BARRINETXEAK UTZITAKO ARGAZKIA

Bittor Egurrola

Sopelako Ander Deuna Ikastola, 1969-70

Urtebete lehenago, zazpi ikasle eta Begoña Zabala irakasle goizuetarrak eman zioten hasiera ikastolari, 1968ko irailaren 15ean, Nikola Telleria apaiz nabarniztarrak (GB) utzitako San Pedro elizako San Antonio aretoan. Hauek izan ziren lehenengo ikasleak: Joseba Begoña, Mikel Begoña, Miren Bego Etxebarria, Jabi Galbarriartu, Maria Galbarriartu, Itziar Pujana eta Izaskun Pujana.

Argazia bigarren ikasturtekoa dugu. Argi denez, ikasle kopuruak gora egin zuen nabarmen, eta horregatik bigarren irakaslea behar zuten, Maria Eugeni Markaida, sopeloztarra (GB). Ikastolaren hazkundera etengabea izan da, eta egun 740 ikasle, 69 irakasle eta hoge langile ez dozente daude.

Fruitu hain ederra, ezinezkoa zatekeen hazia ereiteko lanik egin ezean; lan hori egin zuten orduko gau-eskolek, Alkartasuna elkarteak eta Nikola Telleria jaunak. Beraiei ESKERRIK ASKO, eta ZORIONAK 40 urtetan modu batez zein bestez ikastolaren alde ibilitako guztioi, eta beste 40 urte gutxienez!!!

1. Begoña Zabala (Aranokoa), 2. M^a Eugenia Markaida (G.B.), 3. Joseba Begoña, 4. Maria Galbarriartu, 5. Itziar Pujana, 6. (?), 7. Miren Bego Etxebarria, 8. Amaia Ruiz, 9. Izaskun Pujana, 10. M^a Eugenia Mezo, 11. Miriam Santos, 12. Floren Ugarte, 13. Edurne Larrabe (?), 14. Iñigo Fernandez Badillo, 15. Jasone Olea, 16. Miren Aristegi, 17. Lucia Esteban (Lutxi), 18. Lide Murua, 19. Jone Murua, 20. Aitor Galbarriartu, 21. (?), 22. Maravillas Gorostola, 23. Jon Lopez de Uralde (?), 24. Gorka Olea, 25. Iñigo Lopez de Uralde (?), 26. Jon Karla Biteri, 27. Jabi Galbarriartu, 28. Agustin Biteri (G.B.), 29. Amagoia Olea (?), 30. Juan Luis Muñoz, 31. Izaskun Zarraga, 32. Luis Santos, 33. Ander Legarra, 34. Andoni Biteri, 35. (?), 36. Juan Ugarte (G.B.), 37. Iñaki Barrenetxea, 38. Natxo Etxabe.



gure posta elektronikoa

uk@aldizkaria.biz

UK Uribe Kostako Aldizkaria

[aitormenak]

ITSASO PAYA > Bertsolaria

“Pelikula bateko protagonistista izan gura nuke”

Testua: **Maitane Nerekan**



Defini ezazu zeure burua berba bitan.

Ameslaria eta alferra.

Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?

Annie musikalean. Ikusi nuen lehenengo musikala izan zen; bizitza markatu zidan, eta kantak buruz dakizkit oraindik.

Historiako zein pertsonaia miresten duzu gehien?

Peter Pan. Ez dakit hegan egin ahal zuen ala ez; baina, hainbeste sinesten zuen horretan, azkenean lortu zuela.

Ohitura txarren bat al daukazu?

Atzazalak jatea.

Aitor dezakezun bizio bat.

Tabakoa.

Berriz egingo zenukeen bidaiarik ba al dago?

Letonia, Estonia eta Lituaniara joan nintzen hamar egunez Urruzuno Literatur Saria irabazita, eta bidaia berbera errepikatu gura nuke. Lekuek, eta inguruan nituen pertsonak, oso berezia egin zuten bidaia.

Zein da zure ametsetako bat?

Pelikula bateko protagonistista izatea.

Irakurri duzun azken liburua?

Jon Martinen *Ero*. Agian, bera ezagutuko ez banu ez nuke liburua ulertuko; baina ezagutzen dudanez, ulertu dut, eta gustatu zait.

Zer hutsegite ez duzu sekula barkatzen?

Lagun baten traizioa.

Eguna ala gaua?

Gaua, beti izan naizelako argiagoa gauean.

Euskal Herriko zure txoko kuttuna?

Portu Zaharra. Berezko nortasuna dauka, eta berezia sentiarazten nau. ○

LABURREAN— Sano ezaguna izango da gehienentzat Itsaso Paya, payatarren “bertso-klaneko” gazteena. Oraindik 20 urte bete ez dituen arren, plaza eta eszenatoki askotan ikusi ahal izan dugu dagoeneko. Aurten Bizkaiko Bertsolari Txapelketako kanporaketetarako sailkatu da, eta 2006an Ipar Uribeko txapelduna izan zen. Hala ere, ez da hau bere afizio nagusia; izan ere, neska polifazetikoa da algortarra. Gitarra jo, eta dantza praktikatzeaz gain, antzerki munduan murgilduta dabil azken urteotan. Bertsozaletzat baino gehiago, bertsolaritzat dauka bere burua; txapelketetan izan duen arrakastak animatu du bertsolaritzagaz jarraitzen.

GETXOKO UDAL EUSKALTEGIA ZATOZ GUREKIN!!!



HABEko
1., 2., 3. eta 4. maila
prestatzeko ikastaroak

5 ORDU - 4 ORDU
2,5 ORDU - 2 ORDU
1,5 ORDU

MAILA GUZTIAK
TODOS LOS NIVELES

CURSOS PARA
EXTRANJEROS

MINTZA
PRAKTKA



matrikula zabalik irailaren 24era arte
matrícula abierta hasta el 24 de septiembre

lope de vega, 12 - 48930 (romel)
telefonoak: 94 464 62 99 / 94 464 65 02 - e-mail: euskaltegi@getxo.net